



# MINBIZITIK BIZIRAUTEA

EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN  
**2000-2012**

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD







**MINBIZITIK**  
BIZIRAUTEA  
EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOAN  
**2000-2012**



**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

**Argitalpena:**

1.a, 2018ko otsaila

**Ale-kopurua:**

50 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioa  
Osasun Saila

**Internet:**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

**Argitaratzailea:**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

**Itzultzaileak:**

Elixabete Agirre eta Félix Sainz

**Diseinua eta maketazioa:**

Begoña Paino Ortuzar

**Inprimaketa:**

Eusko Jaurlaritzako Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua

**Lege-Gordailua:**

VI 12-2018

*Eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki, Osakidetzako eta Onkologikoko Ospitaleko Minbizi erregistroan lan egiten dutenei, eman diguten laguntzagatik. Haien ekarpenei esker bermatu baitezakegu erregistroa eguneratuta egotea eta kalitatezkoa izatea.*





# EGILEAK

**Leire Gil.** Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

**Visitación de Castro.** Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

**Amaia Molinuevo.** Epidemiologiako CIBER eta Osasun Publikoa.

**Nerea Echezarreta.** BIODONOSTIA, Gipuzkoako OPko Zuzendariordetza.

**Iñaki Odriozola.** Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco.

**Arantza López de Munain.** Plangintza, Ebaluazio eta Antolamendu Sanitarioko Zuzendaritza.

**María Jesús Mitxelena.** Onkologikoa.

**Cristina Sarasqueta.** BIODONOSTIA, Hospital Universitario Donostia.

**Marta de la Cruz.** Osasun Publikoaren eta Adikzioan Zuzendaritza.

**Joseba Bidaurrezaga.** Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.




**Nerea Larrañaga.** Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza eta Epidemiologiako CIBER eta Osasun Publikoa.





# AURKIBIDEA

LABURDURAK ETA AKRONIMOAK.....	11
LABURPENA.....	13
SARRERA.....	15
HELBURUAK ETA METODOA.....	17
EMAITZAK.....	23
Tumore gaizto guztiak.....	27
Ahoko eta faringeko minbizia.....	30
Hestegorriko minbizia.....	33
Urdaileko minbizia.....	36
Kolon eta ondesteko minbizia.....	39
Gibeleko minbizia.....	42
Behazun-maskuriko eta -bideetako minbizia.....	45
Pankreako minbizia.....	48
Laringeko minbizia.....	51
Biriketako minbizia.....	54
Larruazaleko melanoma.....	57
Bularreko minbizia.....	60
Umetoki-lepoko minbizia.....	62
Umetoki-gorputzeko minbizia.....	64
Obulutegiko minbizia.....	66
Prostatako minbizia.....	68

Giltzurruneko minbizia.....	70
Gernu-maskuriko minbizia.....	73
Nerbio sistema zentraleko minbizia .....	76
Tiroideko minbizia.....	79
Ez-Hodgkin linfoma.....	82
Plasma-zeluletako neoplasiak .....	85
Leuzemia mieloide akutua.....	88
 BIBLIOGRAFIA.....	91
 ERANSKINAK	
Taulak. Biziraupen behatua, garbia eta tumore-taldearen arabera estandarizatua .....	95
Europa eta Espainiaren (2000-2007) eta EAEn arteko konparazioa. Kasu erasotzaileak eta biziraupena (%) 5 urtera.....	97
Geografia-analisiaren taulak .....	98
Joeren taulak.....	100
 GLOSARIOA.....	125

# LABURDURAK ETA AKRONIMOAK

<b>EAE</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>KOM</b>	Kolon eta ondesteko minbizia
<b>GNS-10</b>	Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena, hamargarren bertsioa
<b>GNS-03</b>	Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapena Onkologiarako, hirugarren edizioa
<b>CONCORD</b>	Global surveillance of cancer survival
<b>ENCR</b>	European Network of Cancer Registries
<b>GAE</b>	Gehiegizko arrisku erlatiboa
<b>EUROCARE</b>	European Cancer Registry Based Study on Survival and Care of Cancer Patients
<b>EUSTAT</b>	Euskal Estatistika Erakundea
<b>IARC</b>	International Agency for Research on Cancer
<b>BZHLH</b>	B zelula handien linfoma hedatsua
<b>LMA</b>	Leuzemia mieloide akutua
<b>LF</b>	Linfoma folikularra
<b>LLB</b>	Leuzemia linfoblastikoa / Zelula aintzindarien linfoma linfoblastikoa
<b>LLK/ZTLL</b>	Leuzemia linfatiko kronikoa / Zelula txikien linfoma linfositikoa
<b>EHL</b>	Ez-Hodgkin linfoma
<b>LMK</b>	Leuzemia mieloide kronikoa
<b>ESI</b>	Erakunde Sanitario Integratua
<b>PZN</b>	Plasma-zeluletako neoplasiak
<b>BME</b>	Biztanleriaren minbiziaren erregistroa
<b>REDECAN</b>	Red Española de Registros de Cáncer
<b>BZG</b>	Besterik zehaztu gabea/Sine Alter Indication
<b>HZS</b>	Heriotza-ziurtagiria soilik
<b>BG</b>	Biziraupen garbia
<b>NSZ</b>	Nerbio-sistema zentrala
<b>BGst</b>	Biziraupen garbia, adinaren arabera estandarizatuta
<b>SMD</b>	Sindrome mielodisplasikoak
<b>BB</b>	Biziraupen behatua
<b>BE</b>	Biziraupen erlatiboa
<b>BEst</b>	Biziraupen erlatiboa, adinaren arabera estandarizatuta



# 1. LABURPENA

# LABURPENA

Azterlan honetan, hauxe deskribatzen da: 2000 eta 2012 bitartean tumore gaiztoaren diagnostia izan eta Minbiziaren Euskadiko erregistroan jasotako Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den 14 urtetik gorako biztanleriaren biziraupena.

## BIZIRAUPENA, 5 URTERA

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia, azteraldian diagnostikaturiko tumore gaizto guztientzat, %52,2 izan zen gizonezkoetan eta %59,9, emakumezkoetan. Aldakortasun handia ikusi zen tumore motaren arabera biziraupenean. Alde batetik, prostatiko, barrabiletako eta tiroideko tumoreek, gizonezkoetan, eta tiroideko tumore, sindrome mieloproliferatibo (leuzemia mieloide kronikoa ez), larruazaleko melanoma, Hodgkin linfoma eta bularrekoek, emakumezkoetan, %80koa baino biziraupen handiagoa erakutsi dute bost urtera. Bestalde, pankreako, gibelesko, hestegorriko, biriketako, nerbio-sistema zentralako eta mesoteliomako tumoreek %20koa baino biziraupen txikiagoa erakutsi zuten diagnostikoa egin eta bost urtera.

## EZBERDINTASUN GEOGRAFIKOAK BIZIRAUPENEAN

Heriotza-arrisku gehiegizkoa ikusi zen Bizkaiko eskualderen batean, erreferentziazat Donostialdea hartuta. Hala, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces eta Barrualde-Galdakao eskualdeetako gizonezkoek eta Barakaldo-Sestaoko gizon-emakumeek arrisku handiagoa erakutsi zuten. Desberdintasun horiek, alde batetik, tumore batzuen ondorengo biziraupenaren isla dira; esaterako, prostatiko tumoreak, pronostiko okerragoa erakutsi baitzuten hiru eskualde horietan, edota biriketako minbizia, Barakaldo-Sestaoko gizonezkoetan, eta biriketako eta gernu-maskuriko tumoreak eskualde horretako emakumezkoetan. Bestalde, heriotza-arrisku txikiagoa ikusi zen Arabako eskualdean.

## BIZIRAUPENAREN BILAKAERA

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia, diagnostikotik urtebetera nahiz bost urtera, modu esanguratsuan igo zen 2000-2004 eta 2010-2012 aldian, bost urtera 6 puntu igota gizonezkoetan (%49,2tik %55,2ra) eta 5 puntu, emakumezkoetan (%57,1etik %62,4ra). Gizonezkoek igoera esanguratsua erakutsi zuten, biziraupenean, giltzurruneko tumoreetan (10 puntu), kolon eta ondesteko minbizian eta EHLn (8 puntu), gernu-maskurikoan (6 puntu) eta biriketakoan eta prostatikoan (3 puntu). Emakumezkoetan, biziraupena hobetu egin zen plasma-zelulen tumoreetan (14 puntu), tiroidekoan (11 puntu), kolon eta ondesteko eta giltzurrunekoan (9 puntu), EHLn (6 puntu) eta bularrekoan (3 puntu).

## EUROPA ETA ESPAINIAREKIKO KONPARAZIOA

EAErako 2000-2012 aldian aurkezturiko datuak esanguratsuki handiagoak izan ziren Europarako estimatutakoen aldean. Tumore guztientzat bost urtera erakutsitako biziraupen erlatiboa, 2000-2007 aldian, %50,3 izan baitzen gizonezkoetan, eta %58, emakumezkoetan. Espainiarako estimazioak, berriz, %48,9 eta %58 izan ziren gizonezko eta emakumezkoentzat, hurrenez hurren. Alde horiek aztertutako tumore gehienetan biziraupenak gora egitearen ondorio dira, eta, batez ere, esanguratsuki hobekak dira urdaileko, gibelesko, biriketako eta prostatiko tumoreetan eta EHLn, gizonezkoetan, eta bularreko, obulutegiko, eta tiroideetakoetan eta EHLn, emakumezkoetan.



**2. SARRERA**

Minbizia biztanleriaren artean hunkipen handia sortzen duen gaixotasuna da. EAEn, 2012an, 13.491 tumore gaizto diagnostikatu ziren; 8.012, gizonezkoetan eta 5.479, emakumezkoetan, eta 6.149 lagun hil ziren hori zela kausa eta. Kolon eta ondesteko minbizia izan zen ugariena bi sexuetan; eta prostatako minbizia, gizonezkoetan eta bularrekoa, emakumezkoetan.

Minbizitik bizirautearen datuak funtsezkoak dira gaixotasunak nola egiten duen aurrera jakiteko, eta lanabes giltzarri dira aurrerapen terapeutikoen eraginkortasuna ebaluatzeko. Argitaraturiko EAEko azken datuek, 2000-2004 aldikoek, minbizi guztientzat %50eko biziraupena estimatzen zuten, bost urtera, gizonezkoentzat, eta %60koa, berriz, emakumezkoentzat (1). Biziraupenaren datu horiek Espainiarako 2000-2007 aldirako emandakoen antzekoak dira (2). Europako esparruan, European Cancer Registry based Study on Survival and Care of Cancer Patients (EUROCARE) proiektuaren (3) helburua zen (1990ean abiatu zen) europako hainbat biztanleriatako minbizidun pazienteen biziraupen erlatiboetako desberdintasunak estimatu eta identifikatzea. Beraz, biztanleria mailako minbizi-erregistroa zeukaten alderdi geografikoetako informazioa hartu zuen oinarri. Bere azken argitalpenean, 2000-2007 denboraldiko datuak erabili zituen EAEko erregistroak. Horiek balio izan dute Europa eta Espainia mailako estimazioak lantzeko. Bestalde, bada minbizitik biziraundakoen zainketa globala egiten duen programa bat ere: CONCORD (Global surveillance of cancer survival). Mundu guziko erregistroak jasotzen ditu, baita EAEkoak ere, eta, bigarren edizioan, 9 minbizi motaren biziraupena estimatu zuen 2005-2009 denboraldirako (4).

Gure Erkidegoan, 2010ean argitaratu ziren bertan egindako azken estimazioak (1). Beraz, adierazle garrantzitsu horri buruzko informazio eguneratu eta kalitatezkoa falta zaigu. Azterlan honek biztanleria minbizidunaren biziraupeneko datuak dakartza, hain zuzen ere 2000-2004, 2005-2009 eta 2010-2012 denboraldietakoa. Azterlan honek informazioa emango digu Minbiziaren Estrategiak eta Osasunaren eta Minbiziaren Plan Integralak ebaluatzeko gure Erkidegoan. Halaber, biziraupenean aurrerapen esanguratsurik badagoen jakiten ere lagunduko digu -oraintsu sartutako diagnosi eta terapiatako aurrerapenenak ere erakusten dituzten denboraldietan-, baita biziraupenaren joerak aztertzen ere, eta ezaugarri sozioekonomiko desberdineko gune geografikoen arteko aldeak aztertzen ere bai.





### **3. HELBURUAK ETA METODOA**

# HELBURUAK ETA METODOA

## HELBURUAK

1. Biziraupen behatua eta garbia estimatzea, diagnostikotik 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera.
2. Azteraldian (2000-2004, 2005-2009, 2010-2012) biziraupenak izan duen joera aztertzea, sexuaren eta adin-taldearen arabera.
3. Biziraupenaren desberdintasuna aztertzea, bizi-eremu geografikoaren arabera.

## METODOA

### 1 INFORMAZIO-ITURRIAK ETA AZTERTURIKO BIZTANLERIA

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Biztanleriaren Minbiziaren Erregistroa (BME) da kasuen informazio-iturria. Erregistroa 1986an sortu zen eta EAEn bizi den biztanleriaren %100 hartzen du. Azterreremu bakoitzean hildakoen datuekin egiten dira bizitza-etaulak, hain zuzen ere Euskadiko Hilkortasunaren Erregistroak emandako heriotza-estatistikekin eta Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) emandako biztanleria datuekin.

Azttertutako biztanleria 14 urtetik gorako gizon-emakumeak dira, EAEn bizi direnak, eta minbizi inbaditzailearen diagnostikoa jaso zutenak 2000-2012 denboraldian (biak barne). Jarraipen aktiboa egin da, 2000-2012 denboraldian diagnostikaturiko kasuekin, 2014/12/31ra arte. Azkenengo kontaktuan, bizirik edo hilda gisa sailkatu zen bizi-egoera, jarraipena egiteko. Urte haietan, 2.079.210 eta 2.181.590 biztanle bitartekoa izan zen EAEko biztanleria (5).

Bazter utzi ziren kasuak, haiei buruzko informazio bakarra heriotzen estatistika-buletina izan zenetan, edota autopsian diagnostikaturiko kasuak, hots, biziraupen maila zero zutenen kasuak. Eta intereseko aldagaiaren bateko datuak galdu zirenen kasuak ere baztertu egin ziren.

### 2 AZTERTURIKO MINBIZI MOTAK

Aintzat hartu ziren erregistraturiko minbizi guztiak eta 28 kokapen edo tumore mota, tartean ez-Hodgkin limfomaren lau azpitipoak ere bai. Burulepoetako bi tumore-kokapen ere aztertu ziren (aho-barrunbea eta faringea); bi, kolon-ondestean (kolona eta ondestea); bi azpitipo morfologiko, biriketako minbizian (mikrozitikoa eta ez-mikrozitikoa), eta nerbio-sistema zentralako (NSZ) tumoreen artean, berriz, glioblastoma aztertu zen.

## 1. taula. Tumore gaiztoen kokapen hautatuak, azpikokapenak eta azpitipo morfologikoak

KOKAPENA	GNS-10	AZPITIPOAK	GNS-10/GNS-03
Aho-barrunbea eta faringea	C01-C06, C09-14	Aho-barrunbea Faringea	C01-C06; C09 C10-C14
Hestegorria	C15		
Urdaila	C16		
kolona eta ondestea	C18-C20	Kolona Ondestea	C18 C19-C20
Gibela	C22		
Behazun-maskuria eta -bideak	C23-C24		
Pankrea	C25		
Laringea	C32		
Bronkioak eta birikak	C33-34	Mikrozitikoa Ez-mikrozitikoa	8002, 8041-8045 Gainerako morfologiak, 8000 eta 8001 izan ezik
Larruazaleko melanoma	C43		
Mesotelioma	C45		
Bularra (EMAKUMEAK SOILIK)	C50		
Umetoki-lepoa	C53		
Umetoki-gorputza	C54		
Obulutegia eta umetoki-anexuak	C56, C570-C574, C577		
Prostata	C61		
Barrabilak	C62		
Giltzurruna	C64		
Maskuria	C67		
Nerbio-sistema zentrala	C71		
Tiroidea	C73		
TUMORE HEMATOLOGIKOAK	GNS-03	AZPITIPO MORFOLOGIKOAK	GNS-03
Hodgkinen linfoma	9650-9655, 9659, 9661-9667	B zelula handien linfoma hedatsua (BZHLH)	9675, 9678-9684, 9940
Ez-Hodgkin linfoma	9590, 9591, 9596, 9670- 9671, 9673, 9675, 9678- 9680, 9684, 9687-9688, 9689-9691, 9695, 9698- 9702, 9705, 9708-9709, 9714-9719, 9727-9729, 9761-9762, 9823, 9826, 9827, 9832-9837, 9940	B zelulen leuzemia linfoide kronikoa/Zelula txikien linfoma linfositikoa (LLK/ZTLL) Linfoma folikularra (LF) Leuzemia linfoblastikoa/Zelula aintzindarien linfoma linfoblastikoa (LLB) Ez-Hodgkin linfoma BZG	9670, 9823 9690-9698 9727-9729, 9835-9837 9832-9834 Gainerako morfologiak
Plasma-zeluletako neoplasiak (PZN)	9731-9734		
Leuzemia mieloide akutua (LMA)	9840, 9861, 9866, 9867, 9870-9874, 9891, 9895- 9897, 9910, 9920, 9930- 9931, 9984, 9987		
Leuzemia mieloide kronikoa (LMK)	9863, 9875, 9876, 9945		
Beste neoplasia mieloprolife- ratibo batzuk (LMK izan ezik)	9740-9742, 9950, 9960- 9964, 9975		
Sindrome mielodisplasikoak (SMD)	9980, 9982-9983, 9985- 9986, 9989, 9991-999		
TUMORE GUZTIAK	GNS-10		
Tumore gaiztoak (larruaza- leko ez melanomak izan ezik)	C00-C97, D45-D47 (C44 izan ezik)		

Azterturiko tumoreen zerrenda xehatua erakusten da 1. taulan: tumore solidoak, GNS-10 kodeekin, eta tumore hematologikoak eta biriketako minbiziaren azpitipo morfologikoak, GNS-O3 kode morfologikoekin.

### 3 DATU-BILKETA ETA ESTANDARIZAZIOA

BMEk minbizi-kasuak jasotzen ditu, GNS-O3ren arabera (6) eta nazioarteko irizpide eta estandarren arabera (IARC, ENCR). Biziraupenaren azterlana egiteko, aldagai hauek atera dira kasu bakotzetik: sexua, jaioteguna, bizi den udalerria, diagnosi-data, exitus eguna edo azken kontaktua, bizi-egoera, topografia, morfologia eta portaera GNS-O3ren arabera.

IARCen lanabesak erabili ziren kasuak baliozkotu eta GNS-10era bihurtzeko (IARCTools, ENCR-JCR)(7). Horrelako azterlanetan ohikoak diren datuen kalitate-kontrolak aplikatu ziren: jaiotegunaren, diagnostikoaren eta jarraipenaren arteko konsistentzia; kokapenaren eta morfologiaren arteko konsistentzia (IARCen errutina estandarrak); diagnostia egin zeneko adinaren eta kokapen edo morfologiaren arteko konsistentzia; morfologiaren eta portaeraren arteko konsistentzia; eta tumore primario anizkoitzaren definizioa (8).

### 4 ANALISI-MAILAK

- **Sexua**

Tumore guztietatik bizirautea aztertu zen, sexu bakoitza bere aldetik.

- **Adin-taldeak**

PKolon-ondeste eta bularreko minbiziak aztertzeko, baheketako adin-taldeak erabili ziren: 15etik 49ra; 50etik 69ra; 70etik 79ra eta 80 urtekoak edo zaharragoak. Gainerako tumoreetarako, adin-talde hauek ezarri ziren: 15etik 54ra; 55etik 64ra; 65etik 74ra eta 75 urtekoak edo zaharragoak.

Adin-taldekako azterketak tumore kopurua 20 kasutik gorakoa izan zenetan bakarrik egin ziren. Adin-talde eta diagnosialdi zehatz baterako BGren estimazio fidagarririk jaso ezin izan zenetan, kasu gutxi zirelako, elkarren ondoko bi adin-talde batu ziren. Hala, emakumezkoen gibeledako minbiziaren eta bi sexuen behazun-maskuri eta -bideetako minbiziaren kasuan, 15etik 64 urtera bitartekoetan aztertu zen biziraupena. Tumoreren batean, estimazio ez aski fidagarriak zituzten talde bat baino gehiago baitzegoen, urtebeterako biziraupena bakarrik aurkeztu zen; hala nola nerbio-sistema zentralerako minbizian eta leuzemia mieloide akutuan.

- **Aldia**

Azterketarako hiru aldi ezarri ziren: 2000tik 2004ra, 2005etik 2009ra eta 2010etik 2012ra.

- **Eremu geografikoa**

Geografia mailan biziraupenean egon daitezkeen desberdintasunak aztertzeko, Osakidetzako Erakunde Sanitario Integratuen (ESI) eremuak hartu ziren: Araba (Arabako Errioxa barne dela), Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, Barakaldo-Sestao, Uribe, Bilbao-Basurto, Barrualde-Galdakao, Debagoiena, Debabarrena, Donostialdea, Goierri-Urola Garaia, Bidasoa eta Tolosaldea.

## 5 ANALISI ESTADISTIKOA

Biziraupen behatua (BB) eta biziraupen garbia (BG) estimatu ziren urtebetera, 3 urtera eta 5 urtera, tumore guztietarako eta azterturiko tumore bakoitzerako. Denbora jakin batean gaixotasunetik biziraun duten pazienten proportzioa adierazten du BBak, heriotza-kausa kontuan hartu gabe.

BG honela interpreta daiteke: minbizia edukita, beste heriotza-kausarik egon gabe, denbora jakin batera arte bizirik irauten duten pazienteen proportzioa paziente-talde bererako behaturikoa baino handiagoa denean, eta estimatu ahal izateko, biztanleriaren itxarondako hilkortasuna behar denean. Tumore jakin bat daukaten pazienteetan behatutako biziraupenaren eta lurralde edo herrialde bereko eta sexu, adin-talde eta egutegiko urte bereko biztanleetan itxarondako biziraupenaren arteko arrazoia da BG.

Biziraupenaren azterketa konbentzionala kohorte metodoaren bidez egiten da; aurretik diagnostikaturiko pazienteen informazioa erabiltzen du eta jarraipen osoa egiten zaie. Baina, diagnostikatu berri diren kasuen joerak aztertzeko, periodo eta hibrido metodoak erabiltzen dira (9). Lehenengoan, diagnostikoak eta jarraipenak bat egiten duten denboran, eta informazioa gerora erabiltzen du. Hibrido metodoa erabiltzen da jarraipena diagnostikoaren ondoren denean, eta jarraipenak osoak ez direnean. Bi metodoak konbinatzen ditu (kohorte eta periodo). Kohorte-ikuspegia erabili zen 2000-2012 denboraldi osoko biziraupen garbia estimatzeko. Hiru denboraldietako (200-2004, 2005-2009 eta 2010-2012) biziraupenaren joera aztertzeko ere kohorte-ikuspegia erabili zen, azken denboraldiko 5 urterako biziraupena estimatzeko izan ezik, hibrido-ikuspegia erabili baitzen horretarako. Z testa erabili zen hasierako eta amaierako denboraldien arteko biziraupena alderatzeko, eta estatistikoki esanguratsu jo zen  $p < 0,05$  (10).

Pohar Perme-ren estimatzailea erabili zen biziraupen garbia kalkulatzeko, analisia sailkatu zen maila guztietan: sexua, adin-taldea eta, zenbaitetan,

tumore mota edo morfologia ere bai (11). Hiru denboraldietan zeharreko biziraupenaren bilakaera ere Pohar Perme estimatzailearekin kalkulatu zen, hibrido-ikuspegia kontuan hartuta. Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia (BGst) estimatzeko, biziraupenerako proposaturiko nazioarteko biztanleria estandarrek erabili ziren (International Cancer Survival Standar, ICSS 1, 2 eta 3) (12). Log-log transformazioa erabilia kalkulatu zen %95eko konfiantza-tartea.

Biztanleriaren itxarondako hilkortasuna bitziza-taula zehatzetatik kalkulatu zen urtearen, adinaren, sexuaren, eta osasun-eskualdearen arabera. 2000-2012 urteetako bitziza-taulak eraikitzeke, heriotza-datuak (kausa guztiak direla eta) erabili ziren, Euskadiko Hilkortasun-erregistroak emandako heriotza-estatistikak eta Euskal Estatistika Erakundetik jasotako biztanleria-datuak (urte erdian) erabilia.

Kalkulurako estatistika-metodoekin ezin da balio nulurik erabili adin batean ere; horri erantzuteke, haiek doitu egin ziren, taula laburtuetatik taula osoak eraikita, Ewbank metodoarekin (13). Sexu, urte, adin eta osasun-eskualdekako bitziza-taulak eraikitzeke, hirurteko batez bestekoa kalkulatu zen, hilkortasunean egon zitezkeen balio nuluak saihesteko. Adibidez, 1999, 2000 eta 2001eko biztanleriaren eta hilkortasunaren batez bestekoa kalkulatu da 2000rako, hurrengo urteetarako bezalaxe, 2014rako izan ezik; izan ere, 2015eko hilkortasunaren daturik ez geneukanez, 2013 eta 2014ko batez bestekoa hartu da kontutan.

Eskualdekako desberdintasunak aztertu ziren eredu lineal orokortua erabilia, osasun-eskualdeari egotz dakioken gehiegizko arriskua estimatzen baitu, sexuka sailkatuta eta diagnosialdi, adin-talde eta tumore motaren arabera estandarizatuta. Poisson-en erregresioa erabili zen (14) heriotza-kopuruak Poissonen banaketa bati jarraitzen diolakoan. Sexuaren eta aldiaren arabera estratifikatu zen, eta, analisi geografikoa egiteko, Donostialdea hartu da erreferentziatzat biztanleria handiena eta anitzena duelako (landa/hiri). Biziraupenaren datuak Espainia eta Europari buruz 2000-2007 aldirako argitaratutako datuekin erkatu ziren.

Analisi guztiak STATA 14 pakete estatistikoarekin egin ziren, Cancer Research UK Survival group de London School of Hygiene and Medicine-en sarrera libreko programak erabilia. Erabilitako makroak hauek izan dira: strs (15), stns(16), glm eta ewblft (13).



## **4. EMAITZAK**

# EMAITZAK

2000-2012ko azteraldian, 156.576 minbizi diagnostikatu ziren EAEn bizi ziren 14 urtetik gorako helduetan. Hala ere, aipaturiko hautaketa-irizpideak erabilia, kasuen %2,1 baztertu egin zen; hots, informazio-iturritzat heriotza-ziurtagiria bakarrik zuten tumoreak edota diagnostikoa autopsian egin zitzaizenak. Guztira, analisitik kanpo utzi ziren, gizonezkoetan, 1.818 tumore (%1,9) eta, emakumezkoetan, 1.493 (%2,5) (2. taula). Baztertzearen ehuneko handiena gibealeko tumoreena (emakumezkoetan, %9 eta gizonezkoetan, %4,2) eta pankreako tumore gaiztoena (emakumezkoetan, %6,2 eta gizonezkoetan, %4,1) izan zen.

Azkenik, 153.265 minbizi kasu sartu ziren biziraupenaren analisirako: 93.821 gizonezkoetan diagnostikatuak eta 59.444, emakumezkoetan. Gizonezkoetan diagnostikaturiko tumoreen %11,3k eta emakumezkoetan diagnostikaturikoen %6,6k minbizi inbaditzailearen diagnosia zeukaten aurretik. Ehuneko hori oso aldakorra izan zen tumorearen arabera (2. taula).



## 2. taula. Kasu erasotzaile, kasu baztertu eta aurretiaz tumoreak dituzten kasuen kopurua eta %, kokapenaren eta sexuaren arabera. EAE 2000-2012


Kokapena	GNS-10 Kodeak	GIZONEZKOAK						EMAKUMEZKOAK					
		KASUAK		BAZTERTUAK		AURRETIKO TUMOR-REDUN KASUAK		KASUAK		BAZTERTUAK		AURRETIKO TUMOR-REDUN KASUAK	
		N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
Aho-barrunbea eta faringea	C01-C06, C09-C14	3696	3,9	19	0,5	527	14,3	951	1,6	9	1	75	8
Hestegorria	C15	1770	1,9	22	1,2	304	17,4	317	0,5	13	4,1	44	14,5
Urdaila	C16	4320	4,5	84	1,9	434	10,3	2434	4	86	3,5	174	7,4
Kolona eta ondestea	C18-C20	14591	15,3	190	1,3	1851	12,9	8600	14,1	214	2,5	663	7,9
Gibela	C22	3124	3,3	130	4,2	322	10,8	1115	1,8	100	9	66	6,5
Behazun-maskuria eta -bideak	C23-C24	863	0,9	17	2	117	13,8	1015	1,7	27	2,7	60	6,1
Pankrea	C25	2163	2,3	88	4,1	261	12,6	1992	3,3	123	6,2	178	9,5
Laringea	C32	2987	3,1	16	0,5	294	9,9	210	0,3	2	1	19	9,1
Bronkioak eta biririkak	C33-C34	13800	14,4	306	2,2	2043	15,1	2959	4,9	98	3,3	312	10,9
Larruazaleko melanoma	C43	1408	1,5	7	0,5	113	8,1	1799	3	4	0,2	87	4,9
Mesotelioma	C45	304	0,3	5	1,6	30	10,0	96	0,2	3	3,1	3	3,2
Bularra	C50	211	0,2	2	1	14	6,7	16362	26,9	147	0,9	574	3,5
Umetoki-lepoa	C53	-	-	-	-	-	-	1131	1,9	6	0,5	50	4,4
Umetoki-gorputza	C54	-	-	-	-	-	-	3633	6	18	0,5	312	8,6
Obulutegia eta umetoki-anexuak	C56,C57.0-C57.4,C57.7	-	-	-	-	-	-	2102	3,5	46	2,2	204	9,9
Prostata	C61	20519	21,5	406	2	1538	7,7	-	-	-	-	-	-
Barrabila	C62	728	0,8	3	0,4	4	0,6	-	-	-	-	-	-
Giltzurruna	C64	3075	3,2	70	2,3	421	14,0	1382	2,3	33	2,4	125	9,3
Gernu-maskuria	C67	7245	7,6	81	1,1	855	11,9	1488	2,4	38	2,6	129	8,9
Nerbio-sistema zentrala	C71	1356	1,4	31	2,3	100	7,6	1151	1,9	51	4,4	64	5,8
Tiroidea	C73	452	0,5	16	3,5	42	9,6	1662	2,7	15	1	86	5,2
<b>Tumore hematologikoak</b>													
Hodgkinen linfoma (HL)	C81	508	0,5	1	0,2	21	4,1	342	0,6	1	0,3	11	3,2
Ez-Hodgkin linfoma		3649	3,8	29	0,8	351	9,7	3047	5	36	1,2	189	6,3
Plasma-zelulen neoplasiak	C90	926	1	14	1,5	97	10,6	881	1,5	31	3,5	58	6,8
Leuzemia mieloide akutua		494	0,5	6	1,2	71	14,6	437	0,7	7	1,6	60	14
Leuzemia mieloide kronikoa		307	0,3	3	1	35	11,5	194	0,3	0	0	15	7,7
Sindrome mieloproliferatiboa		502	0,5	1	0,2	46	9,2	503	0,8	0	0	23	4,6
Sindrome mielodisplasikoa		690	0,7	0	0	101	14,6	496	0,8	0	0	38	7,7
<b>Tumore gaiztoak (larruazaleko ez-melanoma izan ezik)</b>	<b>C00-C97, D45-D47 (C44 izan ezik)</b>	<b>95639</b>	<b>100</b>	<b>1818</b>	<b>1,9</b>	<b>10639</b>	<b>11,3</b>	<b>60937</b>	<b>100</b>	<b>1493</b>	<b>2,5</b>	<b>3935</b>	<b>6,6</b>

## EAEKO BIZIRAUPENA, TUMORE MOTAREN ARABERA


2000-2012 denboraldian eta diagnostikotik 5 urtera, gizonezkoek %44,7ko biziraupen behatua (BB) erakutsi zuten (KT: 44,4-45), %52ko biziraupen garbia (BG) (KT: 51,6-52,4) eta adinaren arabera estandarizaturiko %52,2ko biziraupen garbia (BGst) (KT: 51,8-52,6). Emakumezkoetan, 5 urtera estimaturiko biziraupen zifrak %55,7 (KT: 55,3-56,1), %60,2 (KT: 59,7-60,6) eta %59,9 (KT: 59,5-60,4) izan ziren BB, BG eta BGst-rako, hurrenez hurren.

1. eta 2. irudietan erakusten dira aztertutako tumore mota guztien biziraupen behatua (BB), biziraupen garbia (BG) eta adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia (BGst). ERANSKINAREN A.1 eta A.2 taulatan erakusten dira bi irudi horiei dagozkien datuak. Pronostiko txarreko minbiziak (5 urterako biziraupena %20 baino txikiagoa) pankreako, biriketako, hestegorriko, behazun-maskuri eta bideetako eta gibelegoak, mesoteliomak eta NSZko tumoreak izan ziren, gizonezko nahiz emakumezkoetan.

### 1. irudia. Biziraupen behatua (BB), garbia (BG) eta adinaren arabera estandarizaturiko garbia (BGst), diagnostikotik 5 urtera. GIZONEZKOAK, EAE 2000-20012.



**2. irudia. Biziraupen behatua (BB), garbia (BG) eta adinaren arabera estandarizaturiko garbia (BGst), diagnostikotik 5 urtera. EMAKUMEZKOAK, EAE 2000-2012.**



Hurrengo ataletan biziraupenaren analisiaren emaitzak aurkezten dira, tumore guztienak batera eta zenbait minbizirenak banaka. Atal bakoitzean, 2000-2012 denboraldirako biziraupen globalaz eta adin-taldekoaz gain, azterraldiko denboran zeharreko bilakaera ere aztertzen da, eta analisi multibariatu bidez ateratako desberdintasun geografikoak ere bai.

Eranskinean sartu dira hurrengo ataletako tauletan erakusten diren grafikoaren emaitza guztiak.

# TUMORE GAIZTO GUZTIAK (LARRUAZALEKO EZ-MELANOMA IZAN EZIK)

GNS-10: C00-C97 (C44 IZAN EZIK), D45-47

2000-2012ko azteraldian, 156.576 minbizi diagnostikatu ziren, EAEn bizi ziren eta 14 urtetik gora zituzten helduetan: 95.639 gizonezko eta 60.937 emakumezko, urteko batez bestekoa 12.045 zela (7.357 gizonezko eta 4.688 emakumezko). Diagnostika egitean, 68 urte zituzten, batez beste, gizonezkoek, eta 66, emakumeek. Denboraldi horretan bertan 61.536 lagun hil ziren minbiziak jota, urteko 4.733 lagun, batez beste: 39.004 gizonezko eta 22.532 emakumezko.

2000-2013 denboraldian, urteko %0,3 igo zen intzidentzia gizonezkoetan (KT %95: 0,1; 0,5) eta %1,7 urteko, emakumezkoen artean (KT %95: 1,4; 2,0). Hilkortasuna, berriz, urteko %1,3 jaitsi zen gizonezkoetan (KT %95: -1,4; -1,1), 2000-2015 denboraldian, eta emakumezkoen artean bere horretan eutsi zion, hots, esanguratsua ez zen %0,3 jaitsi zen urteko (KT %95: -0,8; 0,3) (17).

## BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia (BGst), diagnostiko egin eta urtebetera eta adin guztietarako, gizonezkoetan, %71,3 izan zen eta emakumezkoetan, %76,6; bost urtera, %52,2ra jaitsi zen gizonezkoetan eta %59,9ra, emakumezkoetan. Biziraupenak behera egiten du adinak gora egin ahala, eta handiagoa da adin-talde guztietako emakumeen artean, 74 urtetik gorakoetan izan ezik; horietan, gizonezkoena baino biziraupen txikixeagoa baita, bai urtebetera, bai 5 urtera.

### 3. taula. Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012

ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	13757			15930		
1		76,7	75,9-77,4		90,6	90,1-91,0
3		62,4	61,6-63,2		82,2	81,6-82,8
5		57,5	56,7-58,4		78,0	77,3-78,6
<b>55-64 urte</b>	21105			11257		
1		75,7	75,1-76,3		86,4	85,8-87,1
3		61,1	60,4-61,8		75,4	74,6-76,2
5		55,6	54,9-56,4		71,1	70,2-72,0
<b>65-74 urte</b>	30618			12474		
1		74,0	73,5-74,6		77,0	76,2-77,8
3		61,3	60,7-61,9		64,5	63,7-65,4
5		56,4	55,8-57,1		58,7	57,7-59,6
<b>&gt;=75 urte</b>	28341			19783		
1		61,6	61,0-62,2		59,1	58,4-59,9
3		47,6	46,9-48,3		45,7	44,9-46,6
5		41,9	41,0-42,7		40,5	39,6-41,5
<b>Guztira*</b>	<b>93821</b>			<b>59444</b>		
1		<b>71,3</b>	<b>71,0-71,6</b>		<b>76,6</b>	<b>76,2-76,9</b>
3		<b>57,5</b>	<b>57,1-57,8</b>		<b>64,9</b>	<b>64,5-65,3</b>
5		<b>52,2</b>	<b>51,8-52,6</b>		<b>59,9</b>	<b>59,5-60,4</b>


\*Adinaren arabera estandarizatuta

**TUMORE GAIZTO GUZTIAK**  
(LARRUAZALEKO EZ-MELANOMA IZAN EZIK)

Europar, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, 5 urtera eta 2000-2007 denboraldian (18), %50,3 izan zen gizonezkoetan, eta, emakumezkoetan, %58,0. Espainiako biziraupenak, garai berean, %48,9ko balioa eman zuen gizonezkoetan, eta, emakumeetan, %58,0 (2).

Sexuaren arabera estratifikaturiko analisi multibarianteak hobekuntza bat erakutsi zuen biziraupenean denboraldiko, eta heriotza-arriskua igo egiten zela, adinak aurrera egin ahala. Adinari loturiko arriskuaren igoera nabarmenagoa izan zen emakumezkoetan gizonezkoetan baino.

**3. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




Analisi berean, desberdintasunak ikusi ziren eskualdeen artean. Pronostiko hobea zuten Arabako eskualdean bizizirengizonezko minbizidunek Donostialdeakoekin baino, eta arrisku handiagoa Bizkaiko hiru eskualdetan: Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, Barakaldo-Sestao eta Barrualde-Galdakao; emakumezkoetan, berriz, Barakaldo-Sestaokoekin soilik erakutsi zituzten desberdintasun esanguratsuak pronostikoan, %9ko gehiegizko arriskua baituzten, Donostialdeako emakumezkoekin alderatuta.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009, 2010-2012)**

Biziraupenaren igoera bat ikusi zen urtebetera eta 5 urtera, bai gizonezko bai emakumezkoetan, osotasunean eta ia adin-talde guztietan, 75 urteko edo gehiagoko gizonezkoetan izan ezik, horiek ez zuten eta hobekuntzarik erakutsi pronostikoan, ez urtebetera, ez 5 urtera. Bost urterako biziraupen garbian zegoen desberdintasuna, 2000-2004 eta 2010-2012 denboraldietan, 6 puntukoa izan zen gizonezkoetan, eta 5,3 puntukoa, emakumezkoetan (p<0.0005 bietan).

4. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%) diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera.  
EAE 2000-2012



## AHO-FARINGETAKO MINBIZIA

GNS-10: C01-C06; C09; C10-14

2000-2012 bitartean, ahoko eta faringeko 4.647 tumore gaizto diagnostikatu ziren EAEn: 3.696 (%80) gizonezkoetan eta 951 (%20), emakumezkoetan (tarte: 329-379); aho-barrunbean zeuden kokatuta 10etik 6. Aho-barrunbeko tumoreen %74 eta faringeko tumoreen %87 gizonezkoetan diagnostikatu ziren. Ahoko minbizia diagnostikatu zitzaizkion 62 urte zituzten, batez beste, gizonezkoek, eta 66, emakumezkoek, eta faringeko minbizia diagnostikatu zitzaizkion, berriz, 61 urte, gizonezkoek eta 59, emakumezkoek.

2000-2013 denboraldian, intzidentzia esanguratsuki jaitsi zen gizonezkoetan, urteko %3,1, eta esanguratsuki igo zen emakumezkoetan, %2,2. 2011-2015 denboraldian 571 gizonezko eta 184 emakumezko hil ziren tumore horren ondorioz (17). Biziraupenaren azterketarako 28 kasu baztertu ziren, eta 4.619 kasurekin egin zen analisia.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia, diagnostikoa egin eta urtebetera, eta adin guztietarako, %68,5 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %78,8. Bost urtera, %37,2ra jaitsi zen gizonezkoetan eta %55,3ra, emakumezkoetan. Biziraupenak behera egin zuen adinarekin, emakumezkoetan izan ezik, antzeko balioetan eutsi baitzion 75 urtera arte, eta, orduan, asko jaitsi zen.


4. taula. Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012

ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	1140			303		
1		77,6	75,2-80,1		83,6	79,5-87,8
3		54,2	51,2-57,1		64,5	59,0-69,9
5		45,0	42,0-48,1		56,7	50,9-62,5
<b>55-64 urte</b>	1188			219		
1		74,4	71,8-76,9		88,9	84,7-93,1
3		47,6	44,6-50,5		72,1	66,0-78,2
5		39,4	36,4-42,4		62,7	55,8-69,5
<b>65-74 urte</b>	886			168		
1		69,0	65,8-72,1		83,5	77,7-89,2
3		44,0	40,6-47,5		67,9	60,5-75,3
5		35,4	31,8-39,0		61,5	53,4-69,6
<b>&gt;=75 urte</b>	463			252		
1		57,5	52,7-62,4		62,8	56,4-69,2
3		37,9	32,6-43,1		49,2	41,9-56,4
5		32,3	26,3-38,2		42,2	33,8-50,6
<b>Guztira*</b>	<b>3677</b>			<b>942</b>		
1		<b>68,5</b>	<b>66,7-70,4</b>		<b>78,8</b>	<b>76,0-81,5</b>
3		<b>45,0</b>	<b>43,0-47,0</b>		<b>62,8</b>	<b>59,3-66,3</b>
5		<b>37,2</b>	<b>35,0-39,4</b>		<b>55,3</b>	<b>51,4-59,2</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta


Bi sexuetan, esanguratsuki txikiagoa izan zen BGst, minbizia faringekoa zenetan. Faringeko minbiziaren BGst, 5 urtera, %29,2 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %30,6. Aho-barrunbeko minbiziaren BGst, 5 urtera, %43,2 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %46,3.

**5. irudia. Biziraupen garbi estandariztua, kokapen anatomikoaren arabera. EAE 2000-2012**



Europar, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, aho-faringeko minbizidunetan, 5 urtera eta 2000-2007 denboraldian, %36,4 izan zen gizonezkoetan, eta %50,3 emakumezkoetan. Biziraupen-baliorik handienak Europa iparraldeko herrialdeetan izan ziren (%46,5), eta txikienak, Europa ekialdeko herrialdeetan (%27,6) (19). Espainiak %34,6ko balioa erakutsi zuen gizonezkoetan, eta %53,1koa, emakumezkoetan (2).

**6. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**





AHO-FARINGETAKO MINBIZIA


Hiltzeko arriskua areagotu egiten zela ikusi zen adinean aurrera egin ahala. 55 urtetik gorako gizonezkoek arrisku esanguratsuki handiagoa eduki zuten gazteagoek baino; emakumezkoen artean, arriskua esanguratsuki handiagoa izan zen 75 urtetik gorakoetan.

Arriskua gutxiagotu egin zen denboraldika; gutxitze hori esanguratsua izan zen gizonezkoetan, hirugarren denboraldian. Araban bizi ziren gizonezkoek arrisku esanguratsuki handiagoa eduki zuen Donostialdean bizi zirenek baino. Kokapen anatomikoari begiratuta, arriskua esanguratsuki handiagoa izan zen, bi sexuetan, minbizia faringekoa zenetan.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Biziraupen globalari begiratuta, ez da aldaketa esanguratsurik ikusten, ez gizonezkoetan, ez emakumezkoetan. Dena den, adinaren eta bizilekuaren arabera estandarizatuz gero, hiltzeko arriskua esanguratsuki jaisten zela ikusi zen gizonezkoen artean, hirugarren denboraldian. Lehenengo eta hirugarren denboraldietan, 5 urtera, biziraupena 6 puntu igo zen gizonezkoetan (%34,8 vs. %40,7), eta 4 puntu, emakumezkoetan (%55,0 vs. %59,3). Adinaren arabera, 55 urtetik beherako gizonezkoetan eta diagnostikotik 5 urtera, biziraupena 15 puntu igo zen (esanguratsua).

**7. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%) diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**



# HESTEGORRIKO MINBIZIA

GNS-10: C15

2000-2012 bitartean, ahoko eta faringeko 4.647 tumore gaizto diagnostikatu ziren EAEn: 3.696 (%80) gizonetzkoetan eta 951 (%20), emakumezkoetan, urteko 161 kasu, batez beste (tartea: 143-175). Diagnostia egin zitzaientean, 65 urte zituzten gizonetzkoek, batez beste, eta 69, emakumezkoek.

2000-2013 denboraldian, intzidentzia esanguratsuki jaitsi zen gizonetzkoetan, urteko %3,1, eta emakumezkoetan igo egin zen, urteko %1.9 (ez-esanguratsua). 2011-2015 denboraldian, 580 gizonetzko eta 118 emakumezko hil ziren tumore horren ondorioz (17). Biziraupenaren azterketarako 35 kasu baztertu ziren, eta 2.052 kasu-ekin egin zen analisia.

## BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia, diagnostikoa egin eta urtebetera, eta adin guztietarako, %42,4 izan zen gizonetzkoetan eta, emakumezkoetan, %42,3. Bost urtera, %11,2ra jaitsi zen gizonetzkoetan eta %17,4ra, emakumezkoetan. Biziraupen garbia jaitsi egin zen 65 urtetik aurrera, adina igotzean, bi sexuetan, eta handiagoa izan zen emakumezkoetan 75 urtera arte, desberdintasunak esanguratsuak izan ez baziren ere.

**5. taula. Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**


ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT % 95	KASUAK	BG %	KT % 95
<b>&lt;55 urte</b>	348			69		
1		46,1	40,8-51,3		42,1	30,6-53,6
3		17,5	13,5-21,6		15,8	13,8-26,5
5		12,4	8,8-16,0		16,5	7,6-25,4
<b>55-64 urte</b>	524			62		
1		47,4	43,1-51,7		48,6	36,2-60,9
3		19,2	15,7-22,6		25,7	14,8-36,5
5		13,8	10,7-17,0		23,9	13,2-34,6
<b>65-74 urte</b>	513			46		
1		39,6	35,3-43,9		41,6	27,5-55,7
3		14,9	11,7-18,1		24,5	12,2-36,8
5		10,1	7,2-12,9		15,7	4,7-4,7
<b>&gt;=75 urte</b>	363			127		
1		29,7	24,8-34,6		25,1	17,3-32,8
3		8,5	5,2-11,7		7,8	2,7-12,9
5		4,4	1,6-7,1		2,2	-0,6-4,9
<b>Guztira*</b>	<b>1748</b>			<b>304</b>		
1		<b>42,4</b>	<b>39,9-44,8</b>		<b>42,3</b>	<b>35,3-49,3</b>
3		<b>16,2</b>	<b>14,3-18,1</b>		<b>21,5</b>	<b>15,4-27,7</b>
5		<b>11,2</b>	<b>9,4-12,9</b>		<b>17,4</b>	<b>11,6-23,2</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

HESTEGORRIKO MINBIZIA

Europar, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, hestegorriko minbizidunetan, 5 urtera eta 2000-2007 denboraldian, %11,9 izan zen gizonezkoetan, eta %15,5 emakumezkoetan. Biziraupen-baliorik handienak Europa erdialdeko herrialdeetan izan ziren (%15,3), eta txikienak, Europa ekialdeko herrialdeetan (%7,7) (20). Espainiak %9,0ko balioa erakutsi zuen gizonezkoetan (2).

**8. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




Heriotza-arriskua igo egin zen adinarekin, eta gehiegizko arriskua esanguratsua izan zen 64 urtetik gorako gizonezkoetan eta 74 urtetik gorako emakumezkoetan. Diagnosialdiaren arabera, gizonezkoetan arriskua esanguratsuki txikiagotu zen hirugarren denboraldian, eta emakumezkoetan ez zen hobekuntzarik ikusi. Araban eta Barrualde-Galdakaoko eskualdean bizi ziren gizonezkoek arrisku esanguratsuki handiagoa erakutsi zuten Donostialdeako gizonezkoen aldean; emakumezkoetan ez zen desberdintasun esanguratsurik ikusi.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Lehenengo eta hirugarren denboraldietan, 6 puntu igo zen biziraupen globala gizonezkoetan, diagnostikotik urtebetara (%38,6 vs. %44,1), eta 4 puntu, bost urtera (%8,5 vs. %12,6). Hobekuntza hori gertu dago esanguratsu izatetik, bost urtera. 15etik 54 urtera bitarteko taldeak izan zuen igoerarik handiena biziraupenean (ez-esanguratsua). Emakumezkoetan, kasu kopurua txikia denez, datuak ezin dira adin-taldeka interpretatu.

**9. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%) diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera.  
EAE 2000-2012**



## URDAILEKO MINBIZIA

GNS-10: C16

2000-2012 bitartean, urdaileko 6.754 minbizi diagnostikatu ziren: 4.320 (%64) gizonezkoetan eta 2.434 (%36), emakumezkoetan, urteko 520 kasu, batez beste (tartea: 482-572). Diagnostia egin zitzaizaien, 70 urte zituzten gizonezkoek, batez beste, eta 74, emakumezkoek.

2000-2013 denboraldian, intzidentzia modu esanguratsuan jaitsi zen, gizonezkoetan, urteko %2,1, eta emakumezkoetan, %1,5. 2011-2015 denboraldian, 1.127 gizonezko eta 675 emakumezko hil ziren tumore horren ondorioz (17). Biziraupenaren azterketarako 170 kasu baztertu ziren, eta 6.584 kasurekin egin zen analisia.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia (BGst), diagnostikoa egin eta urtebetera, eta adin guztietarako, %54,1 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %56,3. Bost urtera, %28,5ra jaitsi zen gizonezkoetan eta %33,4ra emakumezkoetan. Biziraupenak behera egin zuen, bi sexuetan, adinak gora egin ahala. Adin guztietarako BGst, diagnostikotik 5 urtera, esanguratsuki handiagoa izan zen emakumezkoetan.


**6. taula. Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**

ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	491			271		
1		61,1	56,8-65,5		65,8	60,1-71,4
3		39,6	35,2-44,0		49,4	43,4-55,4
5		35,6	31,2-40,0		40,3	34,2-46,3
<b>55-64 urte</b>	803			290		
1		59,9	56,5-63,3		59,4	53,7-65,1
3		37,7	34,3-41,2		40,5	34,8-46,2
5		31,9	28,4-35,3		36,5	30,8-42,2
<b>65-74 urte</b>	1392			540		
1		50,6	48,0-53,3		55,8	51,6-60,0
3		31,5	28,9-34,1		35,6	31,5-39,8
5		26,5	23,9-29,2		31,7	27,5-35,9
<b>&gt;=75 urte</b>	1550			1247		
1		38,0	35,4-40,6		40,3	37,5-43,2
3		19,8	17,5-22,1		25,4	22,6-28,1
5		16,4	13,8-19,9		22,0	19,0-25,0
<b>Guztira*</b>	<b>4236</b>			<b>2348</b>		
1		<b>54,1</b>	<b>52,3-55,9</b>		<b>56,3</b>	<b>53,4-59,2</b>
3		<b>33,5</b>	<b>31,6-35,3</b>		<b>37,9</b>	<b>35,0-40,8</b>
5		<b>28,5</b>	<b>26,7-30,3</b>		<b>33,4</b>	<b>30,5-36,3</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europaraino, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, urdaileko minbizidunetan, 5 urtera eta 2000-2007 denboraldian, %23,7 izan zen gizonezkoetan, eta %27,7 emakumezkoetan. Biziraupen-baliorik handienak Europa hegoaldeko herrialdeetan izan ziren (%29,63), eta txikienak, Europa ekialdeko herrialdeetan (%18,8) (20). Espainiak %24,2ko balioa erakutsi zuen gizonezkoetan, eta %28,3koa, emakumezkoetan (2).

#### 10. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012




Hiltzeko arriskua igo egin zen adinarekin; 64 urtetik gorako gizonezko eta emakumezkoek arrisku esanguratsuki handiagoa eduki zuten 55 urtetik beherakoek baino. Arriskua esanguratsuki jaitsi zen hirugarren denboraldian, gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, berriz, bigarren denboraldian. Araban, Bilbao-Basurton eta Debagoiengan bizi ziren gizonezkoek eta Barakaldo-Sestaon eta Bidasoan bizi ziren emakumezkoek arrisku esanguratsuki txikiagoa erakutsi zuten Donostaldean bizi ziren gizonezko eta emakumezkoek baino.

#### BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)

Lehenengo eta hirugarren denboraldien artean, BGst globala 7 puntu igo zen gizonezkoetan, diagnostikotik urtebetera (%48,9 vs. %56,3), eta 3 puntu, bost urtera (%25,8 vs. %28,6). Igoera hori diagnostikotik urtebetera bakarrik izan zen esanguratsua. Adin-taldeka ez zen aldaketa esanguratsurik ikusi. Emakumezkoetan, biziraupenak ez zuten aldaketak esanguratsurik jasan denboraldian zehar.

**11. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%) diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**



# KOLONEKO ETA ONDESTEKO MINBIZIA

GNS-10: C18-20

2000 eta 2010 bitartean, koloneko eta ondesteko 23.191 minbizi (KOM) diagnostikatu ziren EAEn: 14.591 (%63) gizonezkoetan eta 8.600 (%37), emakumezkoetan, urteko 1.784 kasu, batez beste (tartea: 1.401-2.323). Diagnostika egitean, 70 urte zituzten, batez beste, gizonezkoek, eta 72, emakumeek. Tumorea kolonean kokatua zegoen kasuen %77an eta ondestean, gainerakoan (%23).

Maiztasunean bigarren minbizia da KOM, bi sexuetan. Intzidentzia esanguratsuki igo zen, urteko %2,6 gizonezkoetan, 2000-2013 denboraldian, eta %5,7 emakumezkoetan, 2007-2013 artean. 2011-2015 denboraldian, 2.547 gizonezko hil ziren eta 1.672 emakumezko, tumore horrek jota (17). Biziraupenaren azterketarako 404 kasu baztertu ziren, eta 22.787 kasurekin egin zen analisia.

## BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia (BGst), diagnostikoa egin eta urtebetera, eta adin guztietarako, %78,2 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %77,7. Bost urtera, %56,8ra jaitsi zen gizonezkoetan eta %57,3ra, emakumezkoetan. Biziraupena antzekoa izan zen bi sexuetan, eta behera gin zuen adina igo ahala.

### 7. taula. Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012

ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG%	KT %95	KASUAK	BG%	KT %95
<b>&lt;50 urte</b>	651			539		
1		87,9	85,4-90,4		89,4	86,8-92,1
3		75,1	71,7-78,5		77,4	73,8-81,0
5		68,3	64,5-72,1		66,8	62,5-71,0
<b>50-69 urte</b>	6161			2936		
1		87,5	86,7-88,4		88,7	87,5-89,9
3		74,8	73,6-76,0		74,8	73,2-76,4
5		67,2	65,8-68,5		68,3	66,4-70,1
<b>70-79 urte</b>	5106			2574		
1		78,6	77,3-79,8		78,2	76,5-79,8
3		64,0	62,5-65,6		64,4	62,4-66,4
5		56,9	55,1-58,7		59,3	57,0-61,5
<b>&gt;=80 urte</b>	2483			2337		
1		64,0	61,8-66,1		60,7	58,6-62,9
3		47,8	45,2-50,5		46,0	43,4-48,5
5		40,9	37,6-44,1		40,4	37,3-43,5
<b>Guztira*</b>	<b>14401</b>			<b>8386</b>		
1		<b>78,2</b>	<b>77,6-78,8</b>		<b>77,7</b>	<b>76,9-78,4</b>
3		<b>63,9</b>	<b>63,1-64,7</b>		<b>63,9</b>	<b>63,0-64,9</b>
5		<b>56,8</b>	<b>55,9-57,7</b>		<b>57,3</b>	<b>56,2-58,4</b>


\*Adinaren arabera estandarizatuta



**KOLONEKO ETA ONDESTEKO MINBIZIA**


Kokapenari dagokionez, diagnostikotik urtebeterako BGst esanguratsuki handiagoa izan zen minbizia ondestean kokatuta zegoenetan; desberdintasunik ez zen egon diagnostik 5 urtera. Sexuari eta kokapenari dagokionez, diagnostikotik 5 urtera, koloneko minbiziaren BGst %57,3 izan zen gizonezkoetan, eta %58,1 emakumezkoetan; ondesteko BGst, berriz, %55,8 gizonezkoetan, eta %55,4 emakumezkoetan. Desberdintasunik, kokapenari eta sexuari dagokionez, ez ziren esanguratsuak izan.

**12. irudia. Biziraupen garbi estandarizatuta, kokapen anatomikoaren arabera. EAE 2000-2012**



Europar, 2000-2017 denboraldian, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, koloneko minbiziaren diagnostikotik 5 urtera, %56,4 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %57,8; ondesteko minbizia zenean, txikixeagoa izan zen biziraupena, gizonezkoetan %54,9 eta emakumezkoetan %57,3 (21). Espainian, koloneko minbiziaren kasuan, biziraupena, %56,6 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %58,1, eta ondesteko minbiziaren kasuan, berriz, gizonezkoetan %56,1 eta emakumezkoetan %56,9 (21).

**13. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




69 urtetik gorako gizonezko eta emakumezkoek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa eduki zuten 50 urtetik beherakoek baino; adinean aurrera egin ahala, arriskua ere areagotu egin zen. Arriskua esanguratsuki txikiagotu zen azterturiko bigarren eta hirugarren denboraldietan, bi sexuetan. Urriben bizi ziren gizonezkoek arrisku handiagoa erakutsi zuten Donostialdean bizi zirenek baino, eta Goierri-Urola Garaiko emakumeek, berriz, arrisku esanguratsuki txikiagoa, Donostialdeko emakumeek baino. Ondesteko minbiziari loturiko heriotza-arriskua koloneko minbiziak erakutsitakoaren antzekoa izan zen.

### BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)

KOMen kasuan, lehen eta hirugarren denboraldien arteko biziraupen globala esanguratsuki igo zen, bi sexuetan, diagnostikotik urtebetera nahiz bost urtera. Bost urtera, 8 puntu igo zen gizonezkoetan (%56,4 vs. %64,4) eta 9 puntu, emakumezkoetan (%56,8 vs. %65,8). Biziraupena areagotu egin zen, bai adin-talde guztietan, bai bi sexuetan. Diagnostikotik 5 urtera, hobekuntza esanguratsua izan zen 50 urtetik 69 urtera bitarteko gizonezkoetan, eta 50etik 79 urtera bitarteko emakumezkoetan.

14. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%) diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012



## GIBELEKO MINBIZIA

GNS-10: C22

2000-2012 bitartean, gibelesko 4.239 minbizi diagnostikatu ziren EAEn: 3.124 (%74) gizonezkoetan eta 1.115 (%26), emakumezkoetan; urteko 326 kasu, batez beste (tartea:297-363). Diagnostika egin zituztanean, 68 urte zituzten gizonezkoek, batez beste, eta 74 urte, emakumezkoek.

2000-2013 denboraldian intzidentziak egonkor eutsi zion bi sexuetan. 2011-2015 denboraldian, 1.008 gizonezko eta 459 emakumezko hil ziren tumore horren ondorioz (17). Biziraupenaren azterketarako 230 kasu baztertu dira, eta 4.009 kasurekin egin da analisia.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia, diagnostikoa egin eta urtebetera, eta adin guztietarako, %52,9 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %49,6. Bost urtera, %21,9ra jaitsi zen gizonezkoetan eta %20,9ra, emakumezkoetan. Biziraupenak behera egin zuen, adinak gora egin ahala, eta antzekoa izan zen bi sexuetan adin-talde guztietan.

**8. taula. Biziraupen garbia 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**

ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	450			82		
1		56,9	52,4-61,5		55,0	44,3-65,7
3		37,5	32,9-42,0		35,0	20,6-45,3
5		30,7	26,3-35,2		30,3	20,1-40,5
<b>55-64 urte</b>	687			136		
1		57,1	53,3-61,8		56,1	47,8-64,4
3		35,4	31,8-39,1		35,4	27,3-43,5
5		26,9	23,4-30,5		28,0	20,2-35,8
<b>65-74 urte</b>	1020			277		
1		51,8	48,7-55,0		46,5	40,6-52,4
3		27,1	24,2-30,0		23,2	18,1-28,3
5		17,8	15,2-20,5		13,2	8,8-17,5
<b>&gt;=75 urte</b>	837			520		
1		39,1	35,6-42,6		31,9	27,8-36,1
3		17,6	14,6-20,6		12,5	9,4-15,6
5		7,8	5,3-10,4		7,1	4,4-9,8
<b>Guztira*</b>	<b>2994</b>			<b>1015</b>		
1		<b>52,9</b>	<b>50,5-55,3</b>		<b>49,6</b>	<b>45,3-53,9</b>
3		<b>30,6</b>	<b>28,6-32,6</b>		<b>28,4</b>	<b>24,3-32,5</b>
5		<b>21,9</b>	<b>20,0-23,8</b>		<b>20,9</b>	<b>17,0-24,8</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europar, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, 2000-2007 denboraldian, diagnostikoa egin eta 5 urtera, %11,5 izan zen gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, %12,5. Biziraupen-baliorik handienak Europa hegoaldeko herrialdeetan izan ziren (%14,8), eta txikienak, Europa ekialdeko herrialdeetan (%5,9) (22). Espainiak %14,5eko balioa erakutsi zuen gizonezkoetan, eta %15ekoa, emakumezkoetan (2).

### 15. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012




64 urtetik gorako pazienteek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa eduki zuten 55etik beherakoek baino. Bi sexuetan, arriskua esanguratsuki txikiagotu zen diagnosialdiko. Araban bizi ziren gizon-emakumeek arrisku esanguratsuki txikiagoa erakutsi zuten Donostialdean bizi ziren gizon-emakumeek baino.

### BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)

Lehenengo eta hirugarren denboraldien arteko biziraupen globala 12 puntu igo zen, gizonezkoetan, diagnostikotik urtebetara (%45,3 vs. %57,4), eta 2 puntu, bost urtera (%19,1 vs. %21); igoera diagnostikotik urtebetara bakarrik izan zen esanguratsua. Emakumezkoen BGren bilakaera balioesteko, lehenengo bi adin-taldeak elkartu egin ziren (15-54 eta 55-64). Biziraupena 10 puntu igo zen, emakumezkoetan, diagnostikotik urtebetara (%41,3 vs. %51,9) eta 7 puntu, bost urtera (%14,5 vs. %21,5), baina estatistikoki esanguratsu izan gabe. Ez zen desberdintasun esanguratsurik ikusi bost urtera, adin-talde batean ere.

**16. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**



# BEHAZUN-MASKURIKO ETA -BIDEETAKO MINBIZIA

GNS-10: C23-24

2000-2012 bitartean, gibeletik kanpoko behazun-maskuriko eta behazun-bideetako 1.878 minbizi diagnostikatu ziren EAEn: 863 (%46), gizonezkoetan, eta 1.015 (%54), emakumezkoetan. Kasuak, batez beste, urteko 144 izan ziren (tartea: 119-169). Diagnostia egin zitzaizanean, 73 urte zituzten gizonezkoek, batez beste, eta 77 urte, emakumezkoek.

2000-2013 denboraldian, intzidentzia urteko %1,9 igo zen gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, berriz, %2,6 jaitsi; bi aldaketak izan ziren esanguratsuak. 2011tik 2015era, 179 gizonezko eta 2.141 emakumezko hil ziren tumore horrek jota (17). Biziraupenaren azterketarako 44 kasu baztertu ziren, eta 1.834 kasurekin egin zen analisia.

## BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia (BGst), diagnostikoa egin eta urtebetera, eta adin guztietarako, %48,6 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %45,4. Bost urtera, %21,6ra jaitsi zen gizonezkoetan eta %23,4ra, emakumezkoetan. Biziraupena gutxiagotu egin zen adina igo ahala, eta ez zen desberdintasun esanguratsurik egon sexuaren arabera.

### 9. taula. Biziraupen garbia 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera.

EAE 2000-2012


ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	49			41		
1		56,4	42,5-70,3		53,8	38,7-68,8
3		35,6	22,1-49,1		41,0	26,0-56,0
5		28,7	15,8-41,6		31,3	16,5-46,1
<b>55-64 urte</b>	123			103		
1		50,1	41,2-59,0		57,5	48,0-67,0
3		35,0	26,5-43,6		34,3	25,1-43,4
5		24,1	16,1-32,0		27,7	18,9-36,6
<b>65-74 urte</b>	227			218		
1		49,0	43,0-55,0		32,2	25,9-38,4
3		30,5	24,7-36,2		20,2	14,7-25,6
5		19,3	14,0-24,6		18,9	13,5-24,4
<b>&gt;=75 urte</b>	397			626		
1		37,3	32,3-42,4		28,1	24,4-31,7
3		17,3	12,9-21,7		14,8	11,7-17,9
5		12,8	8,4-17,3		13,2	9,7-16,8
<b>Guztira*</b>	<b>846</b>			<b>988</b>		
1		<b>48,6</b>	<b>44,0-53,3</b>		<b>45,4</b>	<b>40,4-50,3</b>
3		<b>31,1</b>	<b>26,6-35,6</b>		<b>28,1</b>	<b>23,4-32,8</b>
5		<b>21,6</b>	<b>17,4-25,8</b>		<b>23,4</b>	<b>18,8-28,1</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

BEHAZUN-MASKURIKO ETA -BIDEETAKO MINBIZIA

Europar, 2000-2007 bitartean, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, behazun-maskuriko eta -bideetako minbizidunetan, diagnostikotik 5 urtera, %18,1 izan zen gizonezkoetan, eta %15,9 emakumezkoetan. Biziraupenaren baliorik handienak Irlandak/Erresuma Batuak erakutsi zituen (%17,8), eta txikiak, Europa ekialdeko herrialdeek (%12,5) (22). Espainiak %20,2ko balioa erakutsi zuen gizonezkoetan (2). Emakumezkoen daturik ez dago.

**17. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




Hiltzeko arriskua areagotu egin zen adinarekin, eta gehiegizko arriskua esanguratsuki handiagoa izan zen 74 urtetik gorako gizonezkoetan eta 64 urtetik gorako emakumezkoetan. Emakumezkoetan, arriskua txikiagotu egin zen diagnosialdiaren arabera. Barakaldo-Sestaon bizi ziren gizonezkoek eta Debagoienean bizi ziren emakumezkoek arrisku esanguratsuki handiagoa erakutsi zuten Donostialdean bizi zirenek baino.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

BGren bilakaera balioesteko, lehenengo bi adin-taldeak (15-54 eta 55-64 urte) elkartu egin ziren bi sexuetan. Lehenengo eta hirugarrengo denboraldien artean, biziraupen globala 5 puntu igo zen gizonezkoetan, diagnostikotik urtebetera (%44,4 vs. %49,1). Emakumezkoetan, 12 puntu igo zen biziraupena, diagnostikotik urtebetera (%36,1 vs. %48,1) eta 2 puntu, bost urtera (%20,9 vs. %23,2). Behatutako aldaketak ez ziren esanguratsiak izan batean ere.

**18. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**





## PANKREAKO MINBIZIA

GNS-10: C25

2000 eta 2012 bitartean, pankreako 4.155 minbizi diagnostikatu ziren EAEn: 2.163 (%52) gizonezkoetan, eta 1.992 (%48), emakumezkoetan; urteko 320 kasu, batez beste (tartea: 267-414). Diagnostoa egin zitzaientean, 69 urte zituzten gizonezkoek, batez beste, eta 74 urte, emakumezkoek.

2000-2013 denboraldian, pankreako minbiziaren intzidentzia esanguratsuki igo zen gizonezkoetan, urteko %1,5, eta emakumezkoetan, berriz, urteko %0,2 (ez-esanguratsua). 2011-2015 denboraldian, 931 gizonezko eta 838 emakumezko hil ziren tumore horren ondorioz (17). Biziraupenaren azterketarako 211 kasu baztertu dira, eta 3.944 kasurekin egin da analisia.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia (BGst), diagnostikoa egin eta urtebetera, eta adin guztietarako, %25,2 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %32,6. Bost urtera, %6,4ra jaitsi zen gizonezkoetan eta %10era, emakumezkoetan. Biziraupenak behera egin zuen, adinak gora egin ahala, eta handixeagoa izan zen emakumezkoetan, adin-talde guztietan.


**10.taula. Biziraupen garbia 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**

EDAD	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	298			161		
1		32,1	26,8-37,4		43,6	35,9-51,2
3		14,8	10,7-18,8		20,2	13,8-26,5
5		12,1	8,2-16,0		16,1	10,1-22,0
<b>55-64 urte</b>	463			261		
1		28,4	24,3-32,5		38,4	32,6-44,3
3		10,7	7,8-13,7		16,0	11,5-20,6
5		7,3	4,6-9,9		11,7	7,5-15,9
<b>65-74 urte</b>	653			478		
1		21,2	18,0-24,4		27,7	23,6-31,7
3		6,0	4,1-7,9		9,3	6,7-12,0
5		4,3	2,6-6,1		7,9	5,4-10,5
<b>&gt;=75 urte</b>	661			969		
1		14,4	11,7-17,2		12,9	10,8-15,1
3		4,3	2,6-6,1		3,9	2,7-5,3
5		2,4	0,6-4,2		3,1	1,8-4,3
<b>Guztira*</b>	<b>2075</b>			<b>1869</b>		
1		<b>25,2</b>	<b>23,1-27,4</b>		<b>32,6</b>	<b>29,6-35,6</b>
3		<b>9,0</b>	<b>7,5-10,6</b>		<b>12,9</b>	<b>10,6-15,2</b>
5		<b>6,4</b>	<b>5,0-7,7</b>		<b>10,0</b>	<b>7,8-12,1</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europar, 2000tik 2007ra, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, pankreako minbizidunetan, %6,3 izan zen gizonezkoetan eta %7,9 emakumezkoetan, diagnostikotik bost urtera. Biziraupenaren baliorik handienak Europako hegoaldeko herrialdeetan agertu ziren (%7,5), eta txikiak, Irlandan/ Erresuma Batuan (%4,7) (22). Espainiak %5,2ko balioa erakutsi zuen gizonezkoetan, eta %7koa, emakumezkoetan (2).

### 19. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012




Hiltzeko arriskua igo egin zen adinarekin; 64 urtetik gorako gizon-emakumeek arrisku esanguratsuki handiagoa eduki zuten, 55 urtetik beherako pazienteek baino. Arriskua txikiago egin zen diagnosialdiko, eta desberdintasuna esanguratsua izan zen hirugarren denboraldian, bi sexuetan. Barrualde-Galdakoan bizi ziren gizonezkoek arrisku esanguratsuki txikiagoa erakutsi zuten Donostialdean bizi zirenek baino; Barakaldo-Sestaon bizi ziren emakumezkoek arrisku esanguratsuki handiagoa erakutsi zuten Donostialdean bizi zirenek baino.

### BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)

Gizonezko nahiz emakumezkoetan, biziraupenak hobera egin zuen esanguratsuki, diagnostikotik urtebetera, lehenengo eta hirugarren aldien artean. Gizonezkoetan, 7 puntu igo zen (%20,6 vs. %27,9), eta emakumezkoetan, 12 puntu (%23,4 vs. %35,1). Ez zen desberdintasun esanguratsurik izan diagnostikotik 5 urtera. Emakumeen talderik gazteenean (15-54 urte) ikusi zen hobekuntza kontuz interpretatu behar da, kasu kopurua txikia baita adin-talde horretan.

**20. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**



# LARINGEKO MINBIZIA

GNS-10: C32

2000 eta 2012 bitartean, laringeko 3.197 minbizi diagnostikatu ziren EAEn: 2.987 (%93) gizonezkoetan, eta 210 (%7), emakumezkoetan; urteko 246 kasu, batez beste (tartea: 209-313). Diagnostia egin zitzaizkion, 63 urte zituzten, batez beste, gizonezkoek, eta 59, emakumezkoek.

2000-2013 denboraldian, intzidentzia esanguratsuki jaitsi zen gizonezkoetan, urteko %4,8, eta emakumezkoetan bere horretan eutsi zion. 2011tik 2015era bitartean, 411 gizonezko eta 31 emakumezko hil ziren laringeko minbiziak jota (17). Biziraupenaren azterketarako 18 kasu baztertu ziren, eta 3.179 kasurekin egin zen analisisa.

## BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen garbia (BGst), diagnostikoa egin eta urtebetera, eta adinguztietarako, %84,5 izan zen gizonezkoetan eta, emakumezkoetan, %84,4. Bost urtera, %61,4ra jaitsi zen gizonezkoetan eta %65,7ra, emakumezkoetan. Handixeago izan zen biziraupena emakumezkoetan, 75 urtetik gorako taldean izan ezik, eta txikiagotu egin zen adinarekin, bi sexuetan, 64 urtetik aurrera.

**11. taula. Biziraupen garbia 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**


ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	722			94		
1		91,2	89,1-93,4		92,7	87,4-98,0
3		74,3	71,0-77,5		81,1	73,1-89,1
5		66,8	63,2-70,4		71,9	62,5-81,3
<b>55-64 urte</b>	985			50		
1		88,9	86,8-90,9		88,3	79,3-97,2
3		73,6	70,7-76,5		82,8	72,2-93,4
5		66,7	63,4-70,0		71,1	57,7-84,6
<b>65-74 urte</b>	774			37		
1		84,5	81,8-87,3		92,7	84,0-101,5
3		67,3	63,7-71,0		77,6	63,5-91,8
5		59,7	55,5-63,8		76,0	60,4-91,7
<b>&gt;=75 urte</b>	490			27		
1		76,6	72,4-80,9		68,8	50,4-87,2
3		61,9	56,4-67,5		44,0	23,9-64,2
5		55,3	48,7-61,9		47,1	25,5-68,7
<b>Guztira*</b>	<b>2971</b>			<b>208</b>		
1		<b>84,5</b>	<b>82,9-86,1</b>		<b>84,8</b>	<b>78,4-91,1</b>
3		<b>68,5</b>	<b>66,4-70,7</b>		<b>69,7</b>	<b>62,0-77,4</b>
5		<b>61,4</b>	<b>58,9-63,9</b>		<b>65,7</b>	<b>57,2-74,2</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

LARINGEKO MINBIZIA

Europar, 2000-2007 bitartean, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa, laringeko minbizidunetan, %59 izan zen, diagnostikotik 5 urtera, gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, %56,6. Biziraupenaren baliorik txikiak Europa ekialdeko herrialdeek erakutsi zituzten (%47), eta gainerako Europar balioak %61 ingurukoak izan ziren, alde batzuekin: Islandia (%77,5) eta Bulgaria (%42,8) (19). Espainiak %59,5eko balioa erakutsi zuen gizonezkoetan, eta %69,2koa, emakumezkoetan (2).

**21. irudia. Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




64 urtetik gorako gizonezkoek eta 74tik gorako emakumezkoek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa eduki zuten, 55 urtez azpiko gizon-emakumeek baino. Arriskua ez zen modu esanguratsuan aldatu diagnosialdiko. Araban, Uriben eta Barrualde-Galdakaon bizi ziren gizonezkoek arrisku esanguratsuki handiagoa erakutsi zuten Donostialdean bizi zirenek baino. Emakumezkoen artean ez zen desberdintasun esanguratsurik ikusi bizilekuaren arabera.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Ez zen desberdintasun esanguratsurik ikusi diagnosialdiko. Gizonezkoetan, lehenengo eta hirugarren denboraldien artean, biziraupen globala puntu bat jaitsi zen diagnostikotik urtebetara (%83,55 vs. %82,86), eta 3 puntu, bost urtera (%62,16 vs. %59,53); adin-taldearen arabera, aldaketarik gabe eutsi zion 74 urtera arte, eta 74 urtetik gorakoetan jaitsi egin zen (aldaketa esanguratsurik ez). Emakumezkoetan ez da erakusten laringeko minbiziaren bilakaera, diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera, txikia baita egon den kasu kopurua.

22. irudia. Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta adin-taldearen arabera.  
EAE 2000-2012



## BIRIKETAKO MINBIZIA

GNS-10: C33-34

2000tik 2012ra bitartean diagnostikatutako trakeako eta biriketako minbiziak 16.759 izan ziren: gizonezkoetan 13.800 (%82) eta emakumezkoetan 2.959 (%18); 1.289 kasu urteko (tartea: 1.124-1.437). Tumore mikrozitikoak ziren kasu horien %12; %74 ez-mikrozitikoak; eta %14 beste morfologia batzuk. Denek zuten banaketa berdintsua, sexuka. Diagnostikatu zirenean, batez besteko adina honako hau zen: gizonezkoena 67 urte eta emakumezkoena 64 urte.

Tumore hori hirugarrena izan zen maiztasunari dagokionez, bi sexuetan. 2000-2013 aldian, esanguratsuki handitu zen haren intzidentzia: emakumezkoetan %7,2; gizonezkoetan ez zen aldatu. 2011tik 2015era, heriotza gehien eragindako tumorea izan zen gizonezkoetan (901 heriotza/urte) eta hirugarrena, emakumezkoetan (263 kasu/urte) (17). Biziraupenari buruzko ikerketarako, 404 kasu baztertu ziren eta 16.355 kasu analizatu.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia %38,0 zen gizonezkoetan eta %45,2 emakumezkoetan, adin guztietarako, diagnostikoa egin eta urtebetera. Bost urte geroago, behera egin zuen: gizonezkoetan %11,7raino eta emakumezkoetan %16,7raino. Biziraupena, oro har, jaitsi egin zen, adinak gora egin ahala, eta esanguratsuki handiagoa izan zen emakumezkoetan, batik bat 55 urtetik aurrera.


**12. taula: Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**

ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	2070			920		
1		45,2	43,1-47,4		51,9	48,7-55,1
3		21,2	19,4-22,9		24,8	22,0-27,6
5		17,0	15,3-18,9		18,8	16,1-21,4
<b>55-64 urte</b>	3381			658		
1		44,4	42,7-46,1		53,2	49,4-57,0
3		20,4	19,0-21,8		25,4	22,0-28,8
5		15,0	13,7-16,3		21,0	17,6-24,4
<b>65-74 urte</b>	4163			596		
1		38,3	36,8-39,8		49,3	45,3-53,3
3		16,1	15,0-17,3		24,3	20,8-27,8
5		11,9	10,8-13,0		16,7	13,4-20,0
<b>&gt;=75 urte</b>	3879			686		
1		27,9	26,4-29,3		30,3	26,7-33,8
3		9,3	8,3-10,4		15,7	12,7-18,8
5		5,3	4,3-6,2		11,8	8,6-15,0
<b>Guztira*</b>	<b>13493</b>			<b>2860</b>		
1		<b>38,0</b>	<b>37,2-38,8</b>		<b>45,2</b>	<b>43,2-47,1</b>
3		<b>16,1</b>	<b>15,4-16,7</b>		<b>22,2</b>	<b>20,5-23,8</b>
5		<b>11,7</b>	<b>11,1-12,3</b>		<b>16,7</b>	<b>15,0-18,3</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta


Bi sexuetan, BGst-a askoz txikiagoa zen, noski, azpitipo morfologikoa mikrozitikoa agertu zenetan; BGst-a, morfologia honetan diagnostikoa egin zenetik urtebetera eta bost urtera, %28,9 eta %4,0 zen gizonezkoetan eta %31,1 eta %5,0 emakumezkoetan. BGst-a, azpitipo morfologiko ez-mikrozitikoan, %42,2 eta %14,2 zen gizonezkoetan eta %50,2 eta %20,6 emakumezkoetan.

### 23. irudia: Estandarizatutako biziraupen garbia, azpitipo morfologikoaren arabera. EAE 2000-2012



Europar, 2000tik 2007ra, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen erlatiboa %12,0 zen gizonezkoetan eta %15,9 emakumezkoetan, diagnostikoa egin eta bost urtera, biriketako minbiziaren kasuan. Biziraupenaren baliorik handienak Europako erdialdeko nazioetan agertu ziren (%14,8), eta txikienak, Irlandan/ Erresuma Batuan (%9,0) (23). Espainiaren balioa %10,1 zen gizonezkoetan eta %14,7 emakumezkoetan (2).

### 24. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012






**BIRIKETAKO MINBIZIA**

64 urtetik gorako gizonezkoek eta 74tik gorako emakumezkoek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa zuten 55 urtetik beherakoek baino. Arriskua esanguratsuki jaitsi zen analizatutako bigarren eta hirugarren aldian, bi sexuetan. Barakaldo-Sestaon eta Barrualde-Galdakaon bizi ziren gizonezkoek eta Barakaldo-Sestao eta Uribeko emakumezkoek arrisku handiagoa zuten Donostialdeko gizon-emakumeek baino. Azpitipo morfologiko mikrozitikoa eta "beste azpitipo batzuk" zeuzkatenek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa zuten azpitipo ez-mikrozitikoa zeuzkatenek baino.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Biziraupen globala, gizonezkoetan, lehenengo alditik hirugarrenera, 3 puntu handitu zen, diagnostikoa egin zenetik urtebetera (%36,67 vs. %39,79), eta 3 puntu, bost urtera (%10,45 vs. %13,23); biak, izan ere, oso aldaketa esanguratsuak. Emakumezkoetan, berriz, 6 puntu handitu zen, diagnostikoa egin zenetik urtebetera (%41,94 vs. %48,25), eta 4 puntu, bost urtera (%14,06 vs. %17,73); ez zen esanguratsua izan. Adin taldearen arabera, hobekuntza esanguratsua egon zen, diagnostikoa egin eta bost urtera, 65-74 urteko gizonezkoetan.

**25. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta sexuaren arabera. EAE 2000-2012**



# LARRUAZALEKO MELANOMA

GNS-10: C43

2000tik 2012ra, larruazaleko 3.207 melanoma diagnostikatu ziren EAEn: gizonezkoetan 1.408 (%44) eta emakumezkoetan 1.799 (%56); alegia, gizonezkoetan, minbizi kasu guztien %1,5 eta emakumezkoetan %3. Urteko batezbestekoa 247 zen (tartea: 204-306). Diagnostikatu zirenean, batez besteko adina honako hau zen: 61 urte gizonena eta 58 urte emakumeena.

Larruazaleko melanomaren intzidentziak ez zuen aldaketa esanguratsurik izan 2000-2013 aldian; eta hilkortasunak ere ez, 2000tik 2015era (17). Biziraupenaren ikerketarako, 11 kasu baztertu ziren eta 3.196 kasu analizatu.

## BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia %38,0 zen gizonezkoetan eta %45,2 emakumezkoetan, adin guztietarako, diagnostikoa egin eta urtebetera. Bost urte geroago, behera egin zuen: gizonezkoetan %78,1 eraino eta emakumezkoetan %88,9raino. Biziraupena jaitsi egin zen, adina handitzen zen heinean, eta, diagnostikoa egin zenetik bost urtera, esanguratsuki handiagoa zen 65 urtetik beherako emakumezkoetan, baita kopuru osoan ere.

**13. taula: Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin taldearen arabera. EAE 2000-2012**


ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	475			806		
1		96,9	95,2-98,5		98,4	97,5-99,3
3		91,0	88,2-93,7		94,8	93,2-96,4
5		86,6	83,2-89,9		92,9	91,0-94,8
<b>55-64 urte</b>	291			322		
1		93,7	90,7-96,7		99,1	97,9-100,0
3		82,7	77,9-87,4		92,2	89,0-95,3
5		73,3	67,4-79,1		91,0	87,4-94,5
<b>65-74 urte</b>	318			304		
1		96,5	93,9-99,1		95,9	93,4-98,3
3		81,4	76,3-86,5		90,6	86,8-94,3
5		76,6	70,4-82,7		86,5	81,8-91,3
<b>&gt;=75 urte</b>	317			363		
1		88,6	83,9-93,2		91,4	87,5-95,2
3		72,6	65,2-80,0		81,7	75,5-87,9
5		59,8	49,7-69,9		76,3	68,0-84,6
<b>Guztira*</b>	<b>1401</b>			<b>1795</b>		
1		<b>95,0</b>	<b>93,7-96,3</b>		<b>97,1</b>	<b>96,2-97,9</b>
3		<b>84,8</b>	<b>82,6-86,9</b>		<b>91,6</b>	<b>90,1-93,1</b>
5		<b>78,1</b>	<b>75,4-80,7</b>		<b>88,9</b>	<b>87,0-90,8</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

LARRUAZALEKO MELANOMA

Europaraino, 2000tik 2007ra, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen erlatiboa %83,2 zen, diagnostikoa egin eta bost urtera (gizonezkoetan %79,2 eta emakumezkoetan %86,6). Pronostikorik onena iparraldeko herrialdeetan kokatu zen (%87,7) eta Europako erdialdean (%87,6); biziraupen baxuenak, berriz, Europako ekialdeko herrialdeetan (%74,3) (24). Espainian, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen erlatiboa %84,3 zen, diagnostikoa egin eta bost urtera (gizonezkoetan %78,2 eta emakumezkoetan %88,7) (2).

**26. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




Hiltzeko arriskua handitu egin egin zen, adina handitzen zen neurrian; izan ere, 54 urtetik gorako gizonezkoek eta 64tik gorako emakumezkoek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa zuten 55 urtetik beherako pertsonek baino. Ez zen ikusi ezberdintasun esanguratsurik arriskuan, ez diagnosialdiatik, ez bizilekuagatik.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Biziraupena, diagnostikoa egin zenetik urtebetera eta bost urtera diagnosialdiari dagokionez, ez zen esnguratsuki aldatu gizonezkoetan, ezta emakumezkoetan ere. Adin-taldearen arabera ere ez zen aldaketa esanguratsurik gertatu.

27. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta sexuaren arabera.  
EAE 2000-2012



## BULARREKO MINBIZIA

GNS-10: C50

2000tik 2012ra bitartean, bularreko 16.362 minbizi inbaditzaile diagnostikatu ziren emakumezkoetan: 1.260 kasu urteko, batez beste (tartea: 1.082-1.532), hau da, emakumezkoetan diagnostikatutako tumore gaizto guztien %27. Diagnostikoa egin zitzairenean, 61 urte zituzten, batez beste.

2000-2013 aldian, minbizi inbaditzaile ohikoena zen emakumezkoetan. Haren intzidentziak goranzko joera esanguratsua zuen (%1,5 urteko), eta emakumezkoetan heriotza gehien eragindako tumorea zen: batez beste, 342 heriotza urteko, 2011-2015 aldian (17). Biziraupenaren ikerketarako, 147 kasu baztertu ziren eta 16.216 kasu analizatu.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia %95,9 zen adin guztietarako, diagnostikoa egin eta urtebetera; eta jaitsi egin zen, bost urtera, %84,6raino. Biziraupena, oro har, jaitsi egin zen, adina handitzen zen neurrian.


**14. taula: Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin taldearen arabera. EAE 2000-2012**

URTE	<50 urte (4493 kasu)		50-69 urte (7002 kasu)		70-79 urte (2759 kasu)		≥80 urte (1962 kasu)		Guztira* (16216 kasu)	
	BG%	TK 95%	BG%	TK 95%	BG%	TK 95%	BG%	TK 95%	BG%	TK 95%
<b>1</b>	98,9	98,6-99,2	98,1	97,8-98,5	93,7	92,7-94,7	91,2	89,4-92,9	<b>95,9</b>	<b>95,5-96,3</b>
<b>3</b>	94,9	94,2-95,6	94,3	93,7-94,9	86,8	85,2-88,3	77,3	74,4-80,2	<b>89,7</b>	<b>89,0-90,3</b>
<b>5</b>	90,4	89,4-91,3	91,2	90,4-91,9	80,0	78,0-81,9	69,4	65,4-73,4	<b>84,6</b>	<b>83,8-85,5</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europar, 2000tik 2007ra, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen erlatiboa %81,8 zen, diagnostikoa egin zenetik 5 urtera; Europako ekialdean kokatu ziren baliorik baxuenak (%73,7), eta iparraldeko herriladeek, Danimarkak izan ezik, aurkeztu zituzten zenbaki altuenak (%84,7) (25). Espainiak Europako balio berdintsuak aurkeztu zituen: esaterako, %82,8ko biziraupena (2).

**28. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




50 urtetik 69ra bitarteko emakumezkoek hiltzeko arrisku erlatibo esanguratsuki txikiagoa zuten 50etik beherakoek baino. 69tik gorakoen arriskua, berriz, eanguratsuki handiagoa zen, zeina handitu egin zen, adinean aurrera egin ahala. Aztertutako bigarren eta hirugarren aldian, arriskua esanguratsuki txikiagoa zen lehenengo aldian baino (2000-2004). Arriskua dezente handitu zen Debagoieneko ESiko emakumezkoetan.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Biziraupena esanguratsuki handitu zen, adin guztietarako, lehenengo eta hirugarren aldian, urtebetera nahiz bost urtera; diagnostikoa egin zenetik urtebetera, %95,1etik %97,1era igo zen eta bost urtera, %83,4tik %86,0ra. Biziraupena adin talde guztietan handitu zen; hobekuntza hori, baina, soilik izan zen esanguratsua, diagnostikoa egin eta bost urtera, 50 urtetik beherako emakumezkoetan (3 puntu; %88,7 vs. %91,9) eta 50-69 urteko taldean (4 puntu; %89,1 vs. %92,7).

**29. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta sexuaren arabera. EAE 2000-2012**



## UMETOKI-LEPOKO MINBIZIA

GNS-10: C53

2000tik 2012ra bitartean, umetoki-lepoko 16.759 minbizi diagnostikatu ziren; 87 kasu urteko, batez beste (tarte: 73-109). Batez besteko adina 57 urte zen, diagnostikoa egin zenean. Tumore hori, izan ere, emakumeen artean diagnostikatutako tumore gaizto guztien %2 zen, ikerketa aldian.

Intzidentzia ez zen aldatu 2000-2013 aldian, ezta hilkortasuna ere 2000-2015 aldian (17). 1.125 kasu ikertu ziren, sei kasu ikerketatik kanpo utzita.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia gutxitu egin zen, diagnostikoa egin eta urtebetera (%84,8) eta bost urtera (%63,3). Biziraupena gutxitu egin zen, adina handitu ahala; gehienezko balioak 55 urtetik beherako emakumeetan zeuden, eta gutxienezko balioak, 75etik gorakoetan.


**15. taula: Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**

URTE	<55 urte (566 kasu)		55-64 urte (199 kasu)		65-74 urte (180 kasu)		≥75 urte (180 kasu)		Guztira* (1125 kasu)	
	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95
<b>1</b>	90,7	88,4-93,1	89,7	85,5-94,0	81,7	75,9-87,4	62,8	55,3-70,4	<b>84,8</b>	<b>82,7-86,9</b>
<b>3</b>	79,1	75,7-82,5	75,5	69,5-81,6	63,7	56,4-71,0	39,5	31,3-47,7	<b>69,7</b>	<b>67,0-72,4</b>
<b>5</b>	76,5	72,9-80,1	70,1	63,4-76,8	53,1	45,2-61,0	25,5	16,8-34,2	<b>63,3</b>	<b>60,4-66,3</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europar, 2000tik 2007ra, biziraupena %62,4 zen, diagnostikoa egin zenetik bost urtera, umetoki-lepoko minbiziaren kasuan. Biziraupenaren baliorik handiena Europako iparraldeko herrialdeek aurkeztu zuten (%67,1) eta txikiena, Europako ekialdeko herrialdeek (%56,9) (25). Espainian, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen erlatiboa %63,9 zen, umetoki-lepoko minbiziari dagokionez (2).

**30. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




65 urtetik gorako emakumeek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa zuten 55etik beherakoek baino, eta arriskua handitu egin zen, adina handitu ahalean. Desberdintasuna ez zen izan estatistikoki esanguratsua, ez diagnosialdiatik, ez bizilekuatik.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Ez zen ikusi aldaketa esanguratsurik biziraupenaren bilakaeran. Biziraupen globala %60,3 zen lehenengo aldian, diagnostikoa egin eta bost urtera, eta %68,2 hirugarrenean. Era berean, handitu egin zen adin-talde guztietan, 55-64 urteko emakumeen taldean izan ezik.

**31. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta sexuaren arabera. EAE 2000-2012**





## UMETOKI-GORPUTZEKO MINBIZIA

GNS-10: C54

2000-2012 aldian, umetokiko 3.633 minbizi diagnostikatu ziren EAEn; 279 kasu urteko, batez beste (tartea: 228-309). Tumore hori, izatez, emakumeen artean diagnostikatutako tumore gaizto guztien %2 zen, ikerketa aldian. 66 urte zituzten, batez beste, diagnostikoa egin zitzaizkionean.

Tumore horren intzidentziak gora egin zuen esanguratsuki (%3,3 urteko, 2000tik 2006ra); 2006tik aurrera, berriz, ez zen aldatu. Umetokiko minbizia, 2011tik 2015era, heriotza gehien eragiten zuten hamar tumoreen artean zegoen (17). Biziraupenari buruzko ikerketarako, 3.615 kasu hautatu ziren, 18 kasu ikerketatik kanpo utzita.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

2000-2012 aldian, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia %89,4 zen emakume guztientzat, diagnostikoa egin eta urtebetera; baina gutxitu egin zen %75,8raino, bost urtera. 55 urtetik beherako emakumeek biziraupenaren zifrarik handienak erakutsi zituzten; baliorik txikiena 75 urtetik gorako taldean kokatu zen, diagnostikoa egin eta bost urtera (%57,4).


**16. taula: Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, emakumeena, adin taldearen arabera. EAE 2000-2012**

URTE	<55 urte (730 kasu)		55-64 urte (1043 kasu)		65-74 urte (1000 kasu)		≥75 urte (842 kasu)		Guztira* (3615 kasu)	
	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95
<b>1</b>	96,3	94,9-97,7	95,1	93,7-96,4	92,0	90,2-93,7	77,9	74,8-81,0	<b>89,4</b>	<b>88,3-90,5</b>
<b>3</b>	92,1	90,0-94,1	89,3	87,3-91,2	81,8	79,2-84,4	63,0	59,0-67,0	<b>80,0</b>	<b>78,5-81,5</b>
<b>5</b>	90,0	87,6-92,3	86,0	83,7-88,3	76,7	73,7-79,8	57,4	52,7-62,0	<b>75,8</b>	<b>74,0-77,5</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europar, 2000tik 2007ra, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen erlatiboa %76,2 zen, diagnostikoa egin eta bost urtera, umetokiko minbiziaren kasuan. Biziraupenaren baliorik handiena Europako iparraldeko herrialdeetan agertu zen (%83,3), eta txikiena, Europako ekialdeko herrialdeetan (%72,9) (25). Espainian %74,4ko biziraupena zegoen (2).

**32. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




54 urtetik gorako emakumeek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa zuten 55etik beherakoek baino, eta arriskua handitu egin zen, adina handitzen zen neurrian. Esanguratsuki jaitsi zen arriskua 2010-2012 aldian. Ezkerralde-Enkarterri-Crucesen bizi ziren emakumeek arrisku esanguratsuki handiagoa zuten Donostialdeakoek baino.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Biziraupena ez zen esanguratsuki hobetu ikerketa aldian. Hala ere, hiltzeko arriskua esanguratsuki txikiagoa zen azkeneko aldian, adinaren eta bizilekuaren arabera estandarizatuta. Biziraupenaren igoerarik handiena 55 urtetik beherako taldean gertatu zen (7 puntu); igoera hori, baina, ez zen esanguratsua izan.

**33. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta sexuaren arabera. EAE 2000-2012**



## OBULUTEGIKO MINBIZIA

GNS-10: C56; C57.0-C57.4, C57.7

2000tik 2012ra bitartean, obulutegiko 2.102 minbizi diagnostikatu ziren (obulutegiko anexuak barne); batez beste, 162 kasu urteko (tartea: 137-189). Batez besteko adina 63 urte zen, diagnostikoa egin zenean. Tumore hori, izatez, emakumeen artean diagnostikatutako tumore gaizto guztien %3,5 zen ikerketa aldian.

Intzidentzia apenas aldatu zen 2000-2013 aldirian. 2011-2015 aldirian, zerrendako seigarrena izan zen, minbiziz hil zen emakume kopuruari dagokionez (17). Biziraupenaren ikerketarako, 2.056 kasu hautatu ziren, 46 kasu ikerketatik kanpo utzita.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia (BGst) %71,6 zen, emakume guztiak kontuan hartuz, diagnostikoa egin eta urtebetera, eta %41,7 bost urtera. Biziraupena gutxitu egin zen, adinean aurrera egin ahala, eta jaitsierarik handiena 74 urtetik gorako taldean gertatu zen.


**17. taula: Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, emakumeena, adin taldearen arabera. EAE 2000-2012**

URTEA	<55 urte (633 kasu)		55-64 urte (475 kasu)		65-74 urte (450 kasu)		≥75 urte (498 kasu)		Guztira* (2056 kasu)	
	BG%	KT %95	BG%	KT %95	BG%	KT %95	BG%	KT %95	BG%	KT %95
<b>1</b>	90,2	87,8-92,5	85,1	81,9-88,4	74,8	70,8-78,9	45,6	41,1-50,2	<b>71,6</b>	<b>69,6-73,6</b>
<b>3</b>	72,5	69,0-76,1	62,9	58,4-67,3	54,1	49,3-58,9	23,8	19,7-28,0	<b>50,8</b>	<b>48,6-53,0</b>
<b>5</b>	63,1	59,1-67,0	50,2	45,4-55,0	43,1	38,0-48,1	19,4	15,1-23,6	<b>41,7</b>	<b>39,3-44,0</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europaraino, 2000tik 2007ra, biziraupena %37,6 zen, diagnostikoa egin eta bost urtera, obulutegiko eta umetokiari lotutako minbizien kasuan. Biziraupenaren baliorik handiena Europako iparraldeko herrialdeetan agertu zen (%41,1), eta txikiena, Irlandan/Erresuma Batuan (%31,0) (25). Espainiak %36,8ko biziraupen-balioa aurkeztu zuen (2).

### 34. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012



54 urtetik gorako emakumeek hiltzeko arrisku handiagoa zuten 55etik beherakoek baino, eta arriskua esanguratsuki handitu egin zen, adina handitu ahala. Ez zen aldaketarik egon diagnosialdiaren arabera. Ezkerralde-Enkarterri-Crucesen, Bilbao-Basurton eta Uriben bizi ziren emakumeek arrisku esanguratsuki handiagoa zuten Donostialdeakoek baino.


#### BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)

Adin guztietarako, biziraupenak puntu bat gora egin zuen, diagnostikoa egin eta urtebetera (%72,1 vs. %73,4), eta bi puntu, bost urtera (%40,5 vs. %42,3); aldaketa horiek, baina, ez ziren esanguratsuak izan.

Adin-taldearen arabera ere ez zen aldaketa esanguratsurik gertatu.

### 35. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta sexuaren arabera.

EAE 2000-2012



## PROSTATAKO MINBIZIA

GNS-10: C61

2000tik 2012ra bitartean, prostatako 20.519 minbizi diagnostikatu ziren EAEn; 1.578 kasu urteko, batez beste (tartea: 1.258-1.704). Batez besteko adina 70 urte zen, diagnostikoa egin zenean. Tumore hori, izatez, gizonezkoen artean diagnostikatutako tumore gaizto guztien %21,46 zen, ikerketa aldian, gizonezkoen artean ohikoena.

Prostatako minbiziaren intzidentzia esanguratsuki handitu zen EAEn (%4,6 urteko) 2000-2004 alditik aurrera, eta joera horretan jarraitu zuen 2013ra arte. 2000-2015 denboraldian, urteko %2 esanguratsua jaitsi zen hilkortasuna (17). Biziraupenaren ikerketarako, 20.113 kasu hautatu ziren, 406 kasu ikerketatik kanpo utzita.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia gutxitu egin zen: diagnostikoa egin eta urtebetera %96,8 zen eta bost urtera, %89,9. Biziraupena, diagnostikoa egin eta bost urtera, berdintsua izan zen 74 urtera arte; adin horretatik aurrera, esanguratsuki gutxitu zen.

#### 18. taula: Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, gizonena, adin taldearen arabera.


##### EAE 2000-2012

URTEA	<55 urte (725 kasu)		55-64 urte (4.504 kasu)		65-74 urte (8.813 kasu)		≥75 urte (6.071 kasu)		Guztira* (20.113 kasu)	
	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95	BG%	KT % 95
<b>1</b>	97,8	96,7-99,0	98,8	98,4-99,2	98,8	98,4-99,2	92,6	91,6-93,5	<b>96,8</b>	<b>96,4-97,2</b>
<b>3</b>	95,2	93,4-97,0	96,4	95,7-97,2	96,6	95,9-97,3	84,4	82,8-85,9	<b>92,8</b>	<b>92,1-93,4</b>
<b>5</b>	93,1	90,8-95,4	94,2	93,2-95,3	94,7	93,8-95,7	79,7	77,7-81,8	<b>89,9</b>	<b>89,1-90,8</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europar, 2000tik 2007ra, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen erlatiboa %83,4 zen, diagnostikoa egin eta bost urtera, prostatako minbiziaren kasuan. Biziraupenaren baliorik handiena Europako iparraldeko nazioek aurkeztu zuten (%88,0 eta %86,2), eta txikiena, Europako ekialdeko nazioek (%71,9) (26). Espainiak %84,6ko biziraupen-balioa aurkeztu zuen (2).

36. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012




75 urtetik gorako gizonek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa zuten 55 urtetik beherakoek baino. Arriskua esanguratsuki jaitsi zen diagnostikoaren bigarren eta hirugarren aldian. Ezkerralde-Enkarterri-Crucesen, Barakaldo-Sestaon eta Barrualde-Galdakaon bizi ziren gizonek arrisku esanguratsuki handiagoa zuten Donostialdeakoek baino, eta arrisku esanguratsuki txikiagoa, Arabakoek.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Biziraupen garbi globala modu esanguratsuan handitu zen lehenengo eta hirugarren aldian, diagnostikoa egin eta bost urtera: %87,5etik %90,7ra igo zen. Adin-taldean arabera, diagnostikoa egin eta bost urtera, 55 urtetik 74ra bitarteko gizonezkoek hobekuntza esanguratsua erakutsi zuten.

37. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta adin taldearen arabera. EAE 2000-2012



## GILTZURRUNEKO MINBIZIA

GNS-10: C64

2000-2012 denboraldian, giltzurruneko 4.457 tumore gaizto diagnostikatu ziren EAEn; batez beste, 343 kasu urteko (tartea: 285-410). Horien %69 gizonetzkoak ziren eta %31, emakumezkoak; batez besteko adina 66 urte zen gizonetzkoetan eta 68, emakumezkoetan. Tumore hori, izan ere, aldi horretan erregistratutako tumore gaiztoen %2,8 zen; alegia, tumore gaiztoenetan zortzigarrena gizonetzkoen artean eta hamalagarrena, emakumezkoetan.

2000-2013 denboraldian, esanguratsuki handitu zen haren intzidentzia: gizonetzkoetan %2,3 eta emakumezkoetan %2,4. 2011tik 2015era, 452 gizonetzko eta 229 emakumezko hil ziren giltzurruneko minbiziak jota (17). 4.354 kasu erabili ziren ikerketan, 103 kasu ikerketatik kanpo utzita.

### BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia (BGst) %79,0 zen gizonetzkoetan eta %80,4 emakumezkoetan, diagnostikoa egin eta urtebetera. Bost urte geroago, jaitsi egin zen BGst-a: gizonetzkoetan %64,9ra eta emakumeetan %66,5era. Biziraupena gutxitu egin zen, adinean aurrera egin ahala. Biziraupen hobea erakutsi zuten emakumezkoek, 75 urtetik gorakoak taldekoek izan ezik. Desberdintasun horiek, ordea, ez ziren esanguratsuak izan estatistikoki.

**19. taula: Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin taldearen arabera. EAE 2000-2012**


ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	664			270		
1		87,6	85,1-90,2		92,0	88,7-95,2
3		80,9	77,8-83,9		84,3	79,8-88,7
5		77,5	74,1-80,9		80,9	75,9-85,8
<b>55-64 urte</b>	690			251		
1		84,3	81,5-87,1		88,7	84,8-92,7
3		77,1	73,8-80,5		78,8	73,6-84,0
5		73,0	69,2-76,7		76,1	70,5-81,7
<b>65-74 urte</b>	844			303		
1		81,5	78,7-84,2		82,9	78,5-87,2
3		70,9	67,4-74,3		75,4	70,3-80,6
5		64,6	60,6-68,6		69,8	64,0-75,6
<b>&gt;=75 urte</b>	807			525		
1		66,7	63,1-70,2		63,7	59,3-68,1
3		56,1	51,7-60,4		50,7	45,5-55,9
5		50,6	45,3-55,9		46,3	40,5-52,2
<b>Guztira*</b>	<b>3005</b>			<b>1349</b>		
1		<b>79,0</b>	<b>77,5-80,5</b>		<b>80,4</b>	<b>78,3-82,5</b>
3		<b>69,9</b>	<b>68,1-71,8</b>		<b>70,7</b>	<b>68,1-73,3</b>
5		<b>64,9</b>	<b>62,7-67,1</b>		<b>66,5</b>	<b>63,7-69,4</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europar, 2000tik 2007ra, adinaren arabera estandarizatutako biziraupen erlatiboa %59,8 zen gizonezkoetan eta %62,3 emakumezkoetan, giltzurruneko minbiziari dagokionez.

Biziraupenik onena Europako erdialdeko eta hegoaldeko herrialdeetan agertu zen (%64,6 eta %64,4); txikiena, Irlandan/ Erresuma Batuan (%47,6) (27). Espainian, biziraupena %57,5 zen gizonezkoetan eta %59,4 emakumezkoetan, diagnostikoa egin eta bost urtera (2). Biziraupenaren zifra horiek honako minbizi hauei dagozkie: giltzurrunekoa, giltzurrun-pelbisekoa, ureterrekoa eta zehaztu ez diren beste gernu-organo batzuetakoa. Gure analisiak giltzurrun-parenkimako tumoreak bakarrik hautatu ditu.

### 38. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012




55 urtetik gorako gizonezkoek hiltzeko arrisku esanguratsuki handiagoa zuten 55etik beherakoek baino; emakumezkoetan, esanguratsuki handitu zen arriskua 65 urtetik aurrera. Arriskuak gora egin zuen, adina handitu ahala; baina behera egin zuen, diagnosialdiaren arabera. Araban, Barrualde-Galdakaon eta Debagoiengan bizi ziren gizonezkoek arrisku esanguratsuki txikiagoa jasan zuten Donostialdekoek baino. Ez zen ikusi ezberdintasun esanguratsurik emakumezkoetan, bizilekuagatik.

### BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia handitu egin zen lehenengo alditik hirugarrenera bitartean bi sexuetan, diagnostikoa egin eta urtebetera eta bost urtera. Bost urtera, esanguratsua izan zen igoera gizonezkoetan (%60,3 vs. %69,9), baina ez zuen lortu esangura estatistikorik emakumezkoen kasuan (%61,0 vs. %70,0). Dena den, emakumezkoetan murriztu egin zen hiltzeko arriskua aldiari dagokionez, adina eta bizilekua estandarizatu zirenean. Biziraupena adin talde guztietan igo zen; baina soilik izan zen esanguratsua 54 urtetik beherako gizonezkoetan, diagnostikoa egin eta urtebetera.



**39. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta adin taldearen arabera. EAE 2000-2012**



# GERNU-MASKURIKO MINBIZIA

GNS-10: C67

2000tik 2012ra bitartean, gernu-maskuriko 8.733 minbizi diagnostikatu ziren EAEn; 672 kasu urteko, batez beste (tartea: 548-810). Horien %83 gizonetzkoak ziren; batez besteko adina 70 urte zen gizonetzkoetan, eta 73 emakumezkoetan. Tumore hori, izan ere, tumore gaizto guztien %5,7 zen.

2000-2013 aldian, nabarmen handitu zen haren intzidentzia emakumezkoetan (%4,7); gizonetzkoetan ez zen aldaketa esanguratsurik egon. Era berean, 2000-2015 aldian, hilkortasuna esanguratsuki igo zen emakumezkoetan (%1,4); gizonetzkoena, berriz, ez zen aldatu. 2011tik 2015era, 1.288 gizonetzko eta 332 emakumezko hil ziren tumore horren ondorioz (17). Biziraupenaren ikerketarako, 8.614 kasu hautatu ziren, 119 kasu ikerketatik kanpo utzita.

## BIZIRAUPENA, 2000-2012 DENBORALDIAN

Adinaren arabera estandarizatutako biziraupen garbia (BGst) %84,0 zen gizonetzkoetan eta %81,9 emakumezkoetan, adin guztietarako, diagnostikoa egin eta urtebetera. Bost urte geroago, jaitsi egin zen BGst-a: gizonetzkoetan %64,9ra eta emakumeetan %65,9ra. Biziraupenak behera egin zuen, adina handitu ahalean, emakumezkoetan izan ezik 65 urtera arte.


**20. taula. Biziraupen garbia, 1, 3 eta 5 urtera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. EAE 2000-2012**

ADINA	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	KASUAK	BG %	KT %95	KASUAK	BG %	KT %95
<b>&lt;55 urte</b>	727			177		
1		91,9	89,8-93,9		93,3	89,7-97,0
3		83,6	80,8-86,4		81,6	75,8-87,4
5		80,3	77,2-83,4		79,1	72,9-85,4
<b>55-64 urte</b>	1480			223		
1		88,0	86,2-89,7		90,8	87,0-94,7
3		75,4	73,1-77,8		82,6	77,5-87,8
5		69,4	66,8-72,1		79,9	74,3-85,6
<b>65-74 urte</b>	2249			292		
1		85,2	83,6-86,8		83,9	79,6-88,3
3		71,1	68,9-73,2		70,2	64,6-75,8
5		64,6	62,2-67,1		67,0	61,0-73,1
<b>&gt;=75 urte</b>	2708			758		
1		74,6	72,7-76,5		65,5	61,7-69,1
3		59,3	56,9-61,8		50,7	46,4-55,1
5		51,4	48,4-54,5		45,1	39,8-50,5
<b>Guztira*</b>	<b>7164</b>			<b>1450</b>		
1		<b>84,0</b>	<b>83,1-84,9</b>		<b>81,9</b>	<b>79,9-83,9</b>
3		<b>71,0</b>	<b>69,8-72,3</b>		<b>69,6</b>	<b>66,9-72,2</b>
5		<b>64,9</b>	<b>63,4-66,3</b>		<b>65,9</b>	<b>63,0-68,9</b>

\*Adinaren arabera estandarizatuta

Europaraino, 2000tik 2007ra, adinaren arabera estandarizaturiko biziraupen erlatiboa %68,6 zen (gizonezkoetan %69,4 eta emakumezkoetan %66,4), gernu-maskuriko minbizi inbaditzaile eta ez-inbaditzaileei dagokienez, diagnostikoa egin eta bost urtera. Pronostikorik onena Europako iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeetan kokatu zen. Biziraupenik baxuena Eskozian (%49) eta Holandan (%51,7) zuten; herrialde horietan, baita gure ikerketan ere, tumore inbaditzaileekin bakarrik kalkulatu da biziraupena (27). Espainian, biziraupena %70,3 zen gizonezkoetan eta %70,8 emakumezkoetan, diagnostikoa egin eta bost urtera (2).

**40. irudia: Hiltzeko arrisku erlatibo gehiegizkoa (GAE), adinaren, diagnosialdiaren eta bizilekuaren arabera. EAE 2000-2012**




Hiltzeko arriskua esanguratsuki igo egin zen, adina handitzen zen heinean: gizonezkoetan 55 urtetik aurrera eta emakumezkoetan 65 urtetik aurrera. Hiltzeko arriskua esanguratsuki txikiagoa zen gizonezkoetan azken denboraldian; emakumezkoetan, berriz, ez zen aldaketarik gertatu. Barakaldo-Sestaon, Barrualde-Galdakaon eta Debarrenean bizi ziren gizonezkoen arriskua handiagoa zen Donostialdeako gizonezkoena baino. Barakaldo-Sestaon zegoen arriskua, emakumezkoetan, esanguratsuki handiagoa zen Donostialdeako emakumezkoek zutena baino.

**BIZIRAUPENA, DIAGNOSIALDIKO (2000-2004, 2005-2009 ETA 2010-2012)**

Biziraupen globalak gora egin zuen esanguratsuki gizonezkoetan (%62,5 vs. %68,4), diagnostikoa egin eta bost urtera; emakumezkoetan berriz, ez zen modu esanguratsuan igo (%61,7 vs. %67,8). Adin-taldearen arabera, 65-74 urteko taldeak bakarrik izan zuen gorakada esanguratsua, bi sexueta, diagnostikoa egin eta urtebetera.

41. irudia: Biziraupenaren bilakaera (%), diagnosialdiaren eta adin taldearen arabera.  
EAE 2000-2012



## NERBIO-SISTEMA ZENTRALEKO MINBIZIA

GNS-10: C71

